

# Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2003ko otsailaren 14a / 618. zenbakia




## GURPIL ETA TAULA GAINEN ZIRRARA

Arraska, Arrasateko *skate* taldea, sortu dute.  
Herrian kirol hori ezagutzera eman eta  
*skate-park* bat egiteko  
ahalegina egingo du talde horrek

ORAIN ETA HEMEN: ERREPIDEAK KONPONTZEKO ESKAERA/8 • KULTURA: YLLANA TALDEAREN 'SPINGO' /14

AZALA: ALEX AZKARATE

OSASUN GIDA/24



**Laster,  
GIDA 2003  
zure etxean!**

**Zure herriko  
denden eta partikularren  
telefonoen gida.**

Gida osatuen,  
erabilgarriena eta berriena.


## KALEINKESTA/ Mondrague ondo komunikaute dago kanpora begire? Karretera onak dittu?



**PRUDEN ARRIARAN**  
Langillie



**IDOIA IBÁÑEZ**  
Langillie




**VALENTIN MARTÍNEZ**  
Jubilau



**IBAN AGIRREURRETA**  
Langillie



**NAGORE ESPILA**  
Ikaslie



**IÑAKI EIZAGIRRE**  
Ikaslie

Uste dot baietz. Dauzen karreterak nahikua diela pentsetan dot. Baiñe karreterek egitten dittuen kalte ekologikuek be kontuen hartu biher die, baita auto larregi dauzela be.

Ondo dauz. Baiñe uste dot konponketaren bat egin biherko leukiela. Hori bai, gaur egun dauzen karreteretan, berririk egin barik. Lurra txikiketan gabitz horrenbeste karreterakin.

Uste dot karreterak oso txarto dauzela. Zulo asko dauz. Autopistak eta hola-kuek ondo pentsetan jat. Herrixaren onerako egitten dan dana ondo pentsetan jat neri.

Orain dauzenak txarto dauz; Bergarara edo Gasteizera jueteko karreterak, adibidez. Uste dot dauzen karreterak konpondu egin biherko littukiela. Eta biherdanien, barrixek egin.

Azkenaldiko eguraldi txarrakin-eta, behintzet, txarto egon die. Adibidez, Bergarakue zuloz beteta dau, eta Durangotik etorteko Kanpazarreko bidie be oso txarto dau.

Txarto komunikaute dago, mendi artien dauelako eta karreterak be... Gaiñera, illara haundixek egitten die. Karretera barrixek egitteko uste dot gauzak errespetate egin biherko litzakezela.

## TXALOAKETATXISTUAK



**TXISTUAK ATXABALPEKO ZELAIA** Atxabalpeko zelaia oso txarto dago, eta gaitza da han futboleak jokatzera. Futbol zelai hartan talde askok jokatuko balute, normala izango litzateke egoera horretan egoeta, baina erregional mailako Mondrak bakarrik jokatzeko du han. Hilean birritan baino ez da erabiltzen futbol zelai hura; hortaz, argi dago mantentze lanak ez direla behar den moduan egin.

## ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /8

KIROLA /11

KULTURA /14

### Herri anitza, Herrian hitza

Gernikatik Arrasatera bilgunearen baitan, Herri anitza, Herrian hitza taldea.

### Jonathan Pérez, Sevillan

Jonathan Pérez atleta mondragoetarra Sevillan izango da asteburuan, Espainiako Txapelketan.

### Gazte Sailaren ikastaroak

Udaleko Gazte Sailak hainbat ikastaro antolatu ditu. Interesatuok, jo Gazte Bulegora izena ematera.

## ASTEKODATUA

# 6.031

### KILO JAKI BATU DITUZTE SAHARARA BIDALTZEKO

Sahararen aldeko kanpainaren barruan, Arrasaten 6.031 kilo jaki batu dituzte Saharara bidaltzeko. Ikastetxeak, Eroski, BM eta gobernuz kanpoko sei erakunde ibili dira lan horretan.

## BESTEKEESANA

**“Gizonak eta biok tokiz aldatu nahi genuen, herritik zertxobait urruti bizi bainekin; gainera, etxea nahiko**

**txikia zen. Herrian eraikitako etxebizitza berriak begiratzeko arituginen, baina oso garestiak ziren. Orduan, lokal bat saldu ziguten, eta gizonak hori etxebizitza bihurtzeko proposatu zidan. 140 metro koadroko lokala zenez, zerbait polita egiteko aukera genuela ikusi genuen, eta eskaria egin genuen (...)** Arauk urtebete igaro baino lehen bertan bizitzera derrigortzen zaitu. Hala ere, egia da baimen batzuk behar direla, eta horrek prozesua luzatzen duela. Adibidez, bizilagunaren baimena behar duzu, beraien atalondaren alboan zure etxearen sarrera egiteko (...)

**Herrian askok bihurtu dituzte lokalak etxebizitzak”**

ESKARNE GARITAONANDIA  
‘EUSKALDUNON EGUNKARIA’/03-02-09

## HERRITARRENBERBAK/ Itziar Ezpeleta



*Santi Etxeberriaren oroimenez*

**K**aixo, tio: zaila egiten zait gaur zuri idaztea, zaila paper baten zure presentzia, begirakunea, zuk emandako guztia adieraztea. Gogoan daukat neu ukitzen eta besarkatzen ninduzunean, hunkitu egiten ninduzun eta animua ematen zenidan, bizi poza eragiten zenidan.

Tio, ez dakit, zure anaiak gazte joan zirelako-edo, baina niretzat zu zinen Etxebarriatarren patriarka eta hori izaten jarraituko duzu, noski. Lau urte dira ezagutu ginela eta betidanik jakin dut edozertarako zure laguntza nuela.

Une gogorretan beti egon zara laguntzeko prest, baita une alaietan ere. Elkartzen ginen bakoitzean, nire bihotza oxigenatu egiten zenuen, nire egoa altxatzen zenuen, nire burua garrantzitsu sentiarazten zenuen... Ez zenituen nire akatsak ikusten, zure ahotik beti kritika onak entzun izan ditut, eta nahiz eta jakin denak egia ez zirela, zein ondo

sentitzen nintzen. Iaz, ARRASATE PRESSerako artikulua idatzi behar nituenean, esan zenidan: “zuk idatzi, nik irakurriko dizut-eta”.

Tio, ez zaude fisikoki gure artean. Zein gogor egiten zaigu, batez ere tiari eta zure seme-alabei, baina ziur nago sendiko

iparrorratza izaten jarraituko duzula. Gure bihotzetan bizirik zaude eta guk eramango dugu zuk utzitako lekuko.

Gaurko idatzia nire naretasun otoiartzekin bukatu gurako nuke. Zure gustukoa zen, Santi,

eta gaurko egunerako ere oso aproposa dela uste dut. Hori barik ere jarraitu eta bizi egin behar dugu. Horra hor, naretasun otoiartza:

“Jauna, eman iezadazu/baretasuna, konponbiderik ez duten gertaerak onartzeko/adorea, nire eskuetan dagoena aldatzeko/ jakituria, zer egin dezakedan eta zer egin ezin dezakedan bereizteko”.

Egun handia heldu arte. Agur, Santi.

**“Tio, niretzat zu zinen Etxebarriatarren patriarka eta hori izaten jarraituko duzu, noski”**

**Arrasate**

Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 71 25 11  
Faxa: 943 71 23 89  
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA  
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA  
Ubane Madera  
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA  
Alex Azkarate

ZUZENTZAILA  
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA  
Arantzazu Lagunilla  
Izaskun Bolinaga  
Natali Martínez  
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA  
Agurtzane Gainzarain  
Ane Berezibar  
Iratxe Bengoa

BANAKETA  
Julen Aranguren

LEGE-GORDAILUA  
55-1124/88

ISSN  
0214-4654

TIRADA  
7.350 ale

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Aramaioko  
Udala

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**EGUBAKOITZA, 14**  
Azkoaga, Ferrerías ..... 943 79 15 15

**ZAPATUA, 15**  
Azkoaga, Iturriotz ..... 943 79 79 99

**DOMEKA, 16**  
Corcuera, Aranbarri 1 ..... 943 79 22 26

**ASTELEHENA, 17**  
Irizar, Erguin 11 ..... 943 79 12 39

**MARTITZENA, 18**  
Amezua, Santa Marina 32 ..... 943 79 09 74

**EGUAZTENA, 19**  
Zabala, Zarugalde 42 ..... 943 77 16 30

**EGUENA, 20**  
Ruiz, Maala 31 ..... 943 79 14 09

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**ERIETXEAK**  
Arrasateko Eskualde Ospitalea ..... 943 03 53 00  
Iguualatorioa ..... 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea:  
Gizonak ..... 943 79 39 00  
Emakumeak ..... 943 79 44 11  
Buru osasunerako etxea ..... 943 79 90 11

**LARRIALDIAK**  
SOS Deiak ..... 112  
Gurutze Gorria ..... 943 76 55 76  
DYA ..... 943 78 71 57

**ANBULATORIOAK**  
Guardiako medikua ..... 943 46 11 11  
Astelehenetik  
egubakoitzera ..... 17:00etatik 08:30era  
Zapatuetan ..... 14:00etatik 08:30era  
Asteburuetan eta jaiegunetan... egun osoa

**Arrasate**  
Astelehenetik  
egubakoitzera ..... 08:00etatik 17:00etara  
Zapatuetan ..... 09:00etatik 14:00etara

- Txanda hartzeko:  
medikuntza orok eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak ..... 943 03 53 11
- Ikuskatzailea ..... 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak ..... 943 03 53 11

**ANBULANTZIAK**  
Gipuzkoako Anbulantziak ..... 943 45 87 44

**ERTZAINZAK**  
Arrasate ..... 943 79 71 99

**SUHILTZAILAK**  
Udal taldea ..... 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaileburua ..... 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde Parkea ..... 088

**MATXURAK**  
Urak (Udal Zerbitzua) ..... 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) ..... 943 12 01 62  
Gasa ..... 900 40 05 23  
943 79 78 44

**GARRAIOAK**  
Taxiak ..... 943 79 12 22  
PESA ..... 902 10 12 10

**HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXAK**  
Iturbide egoitza ..... 943 79 72 11  
Abaroa erretiratuen egoitza ..... 943 79 81 57

**MONTEIRON LIBURUTEGIA**  
Monterron ..... 943 77 01 05

**MEZAK**

<b>San Joan parrokia</b> Zapatua 19:00 (elebiduna)	<b>San Andres eliza</b> Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	Domeka 10:00 (elebiduna) 11:00 (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) 13:00 (gaztelaniaz)
<b>San Frantzisko eliza</b> Zapatua 19:00 (elebiduna)	<b>Santa Teresa eliza</b> Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz)	Domeka 11:00 San Isidron (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz)
<b>Uribarri parrokia</b> Zapatua 19:00 (elebiduna)	<b>Santa Marinako eliza</b> Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz)
Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)	Domeka 12:00 (gaztelaniaz)

**OHARRAK**

**SAN ISIDRO ELKARTEA**  
Etzi, domeka, Musakolako San Isidro elkarteak batzar orokorra egingo du. 11:00etan, meza izango dute San Isidro elizan eta mezaren ostean, elkartearen salda eta txorizoa izango dute. 12:15ean, batzar nagusia hasiko dute.

**ARIZMENDIREN BATZARRA**  
Eguaztenean, hilaren 19an, Arizmendi Ikastolako lau eskolek fusioaren gaineko batzarra egingo dute, nork bere egoitzan. Lehenengo deialdia 18:00etan izango da, egoitza guztietan.

**EGUENETAKO ZINEKLUBA**  
Eguenean, hilaren 20an, *La Cuadrilla* filma emango dute Amaia Udal Antzokian, 21:30ean.

**'SKATE' ESKOLA**  
Bihar, zapatua, *skate* eskola emango dute Musakolako kiroldegiko pilotalekuan. Arraskak eta Aukeak antolatu dute ekimen hori. 11:00etan hasiko da *skate* eskola, eta gazteek irristatzen ikasi ahal izango dute bertan.

**BOLIBIAKO INKEN GAINEAN**  
Gaur, egubakoitza, Bolibiako *ayllu* komunitate inkaren gaineko berbaldia egingo dute Monterronen, 19:00etan.

**AEDren AGENDA**

**NEGUKO OLINPIADAK**  
Otsailaren 22an, Neguko Olinpiadak egingo dituzte Arrasaten. Goizetik iluntzera arte, herri kirolak eta bestelakoak egongo dira. Izena eman AEDn lehenbaiten.

**SENDABELARREN GAINEAN**  
Sendabelarren gaineko taldea eratu dute. Interesa baduzu, jo AEDra.

**URBANOEN ORDUTEGIA**

**Gorostizatik Eroskira**  
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara**  
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.  
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**ORAINDELA 10URTEARRASATEN**

**Emakume elkarteek, proiektu bateratua**


Arrasateko Emakumeen Asanbladak, Egizan-ek, Ekin Emakume taldeak eta Gizarte Heziketarako Zentroko emakumeek emakumearen gaineko proiektu bateratua egin zuten Arrasateko Udalean. Besteak beste, emakumeendako zerbitzu bereziak eskatu zizkioten Udalari.



**BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

**"Zalapartara"**

Mugimendu azkar eta bortitza.  
— *Oillua eskutan artu giñuanian demaseko zalapartarak jota zittuan.*



**ARRASATE IRRATIA FM 107.7**



**Josu Cifuentesi laguntzeko kanpaina**

Josu Cifuentes 12 urteko bergararra ez da aspaldian eskolara joan. Leuzemia du Josuk, eta transplante bat egiteko zain dago. Bitartean, ebakuntzaren gastuak ordaindu ahal izateko kanpaina abiarazi dute familiak eta lagunek. Horren gainean egin dugu berba oraingo astean Josu Cifuentesekin, eta zapatuan eta domekan berriro eskainiko dizuegu elkarrizketa. *Kontu kontari* atalean, berriz, herrian izan ziren pilotariak gogoratuko ditugu.



**Larraitz Ugarte kriminologoa**

Martitzen goizean, Larraitz Ugarte oñatiarra izango da Arrasate Irratian. Kartzelaren, zigorraren eta delituaren gainean EHU'n egindako ikerketa baten parte hartu du Larraitzek, eta azterketa horren emaitzak jakinaraziko dizkigu. Zuzenbidean lizentziaduna da Larraitz, eta kriminologoa da. Bestalde, zineklubera joateko sarrerak zozketatzen ditu aste-oro herriko irratia. 11:30ean izaten den tartera deituz gero, sarrera bi eskura ditzakezu.

**HAUGIROA!**

<b>MINIMOA</b> Domeka, 9	<b>-1 °C</b>
<b>MAXIMOA</b> Zapatua, 8	<b>16 °C</b>
<b>ASTEKO EURIA (l/m²)</b>	<b>26,3 L</b>
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 5	8 °C 3 °C 19,8 l/m²
Eguena, 6	10 °C 4 °C 0,2 l/m²
Egubakoitza, 7	15 °C 2 °C — l/m²
Zapatua, 8	16 °C 0 °C — l/m²
Domeka, 9	8 °C -1 °C 4,8 l/m²
Astelehena, 10	12 °C 6 °C 0,4 l/m²
Martitzena, 11	11 °C 4 °C 1,1 l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak



**ASTEKO PROGRAMAZIOA**

**ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**  
09:30 Igo autobusera  
10:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
10:06 Igo Autobusera.  
11:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
11:20 Arrasate Irratiko albistegia.  
11:30 Eguerdiko hamabiak arte: efermerideak, zozketak, zorion agurrak...  
12:00 Euskadi Irratiko albistegia  
12:06 Musika berriaren tartea.  
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.  
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra

**ASTELEHENA**  
20:00 **MIR**: Gaizka Vitoria eta Iban Idigoras.

**MARTITZENA**  
20:00 **Txortxorrien**: Mikel Aranburu eta Jokin Etxebarria.

**EGUBAKOITZA**  
19:00 **Planing Prest**: Deiane Arrieta

**ZAPATUA**  
11:00 **Asteko elkarrizketak**: Josu Cifuentes, Joxe Arriaran, Galder Cristobal, Itziar Mallabiarrena...

**DOMEKA**  
11:00 **Asteko elkarrizketak**

## ASTEABIHITZETAN

### 'Torturari stop'

Torturaren aurkako kale bilkura isila egin zuten Herriko Plazan zapatu arratsaldean. Era berean, Torturaren Aurkako Taldeko lau kidek atxilotuek salatzen dituzten tratu txarrak irudikatu zituzten.

Torturaren Aurkako Taldea gazte askok bizi duten egoera salatzen sortu dute. Taldekideen esanetan, sistematikoki torturatzen da, torturak fisikoak eta psikikoak izaten dira, eta 2002an, 127 lagun torturatu zituzten. Horrenbestez, tortura, desagertu baino gehiago, areagotu egin da azken urteotan, TATEko kideek esan zuten.

### Andoingo atentatua gaitzesteko bilkura

Astelehen eguerdian, hainbat lagun udaletxearen aurrean elkartu ziren, Joseba Pagazaurtundua Andoingo udaltzainburuaren aurka egindako atentatua gaitzesteko, lehendakariaren deiarekin bat eginez. Bilkuran herritarrak eta zenbait alderditako ordezkariak izan ziren.

Horren haritik, hau da, Joseba Pagazaurtundua sozialistaren aurkako atentatua salatzen, Bakearen Aldeko Koordinakundeak deituta astelehen arratsaldean beste bilkura bat egin zuten.

### Sonografoa ipiniko dute Haizea tabernan

Zarugalde kaleko Haizea tabernan sonografoa ipintzea erabaki du Arrasateko Udalak. Kontua da tabernako zaratak direla-eta zenbait herritarrek salaketak ipini dituztela.

Horrelakoetan egin izan duten moduan, kasu honetan ere sonografoa zenbait hilabetez izango dute Haizea tabernan, eta gero, sonografoaren emaitzak batuko dituzte. Udaltzaingoa arduratuko da lan horretaz. Jasotako emaitza horien arabera erabakiko dute Haizea tabernako arduradunei isuna ipini beharra dagoen edo ez.



### Marea beltzaren kaltetuei laguntza

Fagor taldeko kontseilu sozialak erabaki du *Prestige* ontziak egindako hondamendiak kaltetutakoei laguntza ematea. Langileek euren soldatetik emango dute dirulaguntza, baina oraindik ez dute erabaki diru hori Galiziarra, Asturiasera edo euskal kostara bidaliko duten.



### USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

## Ekimen txikiak, indartsu

**A**spaldi honetan mende-baldeko begi asko Irakera begira daude -beste batzuk nahikoa dute begi parean dutenarekin-. AEBk herrialde hori bonbardatu eta inbaditu gura dute, euren armen industria aberasteko eta, bide batez, petrolioz beteta dagoen herrialde hori bereganatzeko. Aurretik Irakeko herritarrei kupida barik blokeo bat

jasan arazi diete.

Munduko hainbat herrialde txiki eta globalizazioaren aurkako taldek erakutsi dute jendea mugiarazteko eta kontzientzia pizteko gaitasuna dutela. Horra hor, esaterako, AEBetan egin dituzten kale agerraldi jendetsuak.

Gu bizi garen lekutik hurbilago, joan den asteburuan Iruñeko Eguzki Irra-

tiak 20 urte bete zituen eta 6.000 lagunek hiri bereko Anaitasuna kiroldegia bete egin zuten. Horrelako irrati batek -baita Gasteizko Hala Bedi irratiak ere- hainbeste urte irauteak izugarritzko meritua dauka. Bai Gasteizen eta baita Iruñean ere herri mugimenduei izugarritzko oztupoak jartzen dizkiete, eta irrati horiek horren adibide garbiak dira. Osasuntsu daudela eta aurrera egiten dutela, pozgarria da benetan.

## ASTEKOIRUDIA



UBANE MADERA

### SEI TONAKO ELKARTASUN ADIERAZPENA ARRASATETIK SAHARARA

Oso balorazio positiboa egin du Arrasateko Udaleko Ongizate Sailak Saharari laguntzeko kanpainaren gainean. Izan ere, Arrasaten sei tona jaki batu dituzte saharar errefuxiatuei bidaltzeko. Horrekin batera, aipagarria da ekimen horretan herriko ikas-tetze, gobernuz kanpoko erakunde eta elkarte gehie-

nek parte hartu gura izan dutela; baita supermerkatu handiek ere. Beharra dutenekiko elkartasun adierazpen handia izan da, hortaz, herrian. Eta hola-koak oso garrantzitsuak izan ohi dira beti. are gehiago, gaur egun mundua zelan dagoen ikusita. Orain, inoiz baino gehiago behar dira ekimenok.

ad **Ibabe**

**IBABE GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**

Gesalibar auzoa, z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

**S. CARRASCAL S.L.**


**Guk egindakoak:**

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

**Fabrikan erakusketa**

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a  
Tel/Faxa: 943 79 01 82

Garagardo ona, giro hobea



**TXIRRITA**

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

**KIROLA/** Arraska, Arrasateko Skate Elkartea, sortu dute, eta ibarreko irristalariak ere bat egin dute

# Herrian 'skate'-a ezagutzera emateko eta indartzeko taldea sortu dute



ARRASKA

Hainbat urtean, skate zaleek Santa Barbarako U itxurako plataforma bakarrik eduki dute. Eta, orain dela gutxi, konpondu zuten arte, oso egoera kaskarrean egon da.

IKER BARANDIARAN

**Arrasaten skate zaleen talde bat sortu berri dute, Arraska izena duena: Arrasateko Skate Taldea. Skate-arekin ibiltzea gustuko dute, eta Arrasaten ez dute horretarako azpiegitura nahikorik. Hain zuzen, skate-a ezagutzera ematea da talde berri horren helburua.**

Arrasateko hainbat gazte Udaleri herrian skate-arekin ibiltzeko azpiegitura eta leku apropos bat eskatzen dabilta aspalditik. 1998an, kirol zinegotziarekin batzarrak egiten hasi ziren. Horren ondoren, Aukeako arduradunekin berbetan hasi ziren, eta Aukeako jakinarazi zieten skate zaleen talde bat eratuz gero, euren eskaerak lortzeko aukera handiagoak izango zituztela. Proposamen hura kontuan hartu zuten, eta gerora, handik hiru urtera taldea eratu zuten.

Hala ere, Aukeako arduradunek gazteei jakinarazi zieten Mojategin -egungo Musakolako kiroldegia atzean dagoen lurzorua egin gura zuten kirol instalazioan proiektu erraldoian ere skate-park bat jartzea zehaztuta zutela.

## MOJATEGIKO PROIEKTUA, DIRU BARIK

Handik urte batzuetara, ostera, Arrasateko Udalak Mojategin egin gura zuen kirol instalazioen proiektu erraldoia bertan behera geratu zen. Ez zen Gipuzkoako Foru Aldundiak iragarritako dirulaguntzarik helduko, eta hori barik

ezinezkoa zen proiektua aurrera eramatea.

Skate zaleek 2001ean jakin zuten Mojategiko proiektua ez zela aurrera eramango. Hala ere, Aukeako arduradunek jakinarazi zieten Musakolako kiroldegia alboan skate-park bat eta auto telegidatuekin ibiltzeko ekipamenduak egin gura zituztela. Horiek egiten hasteko udal aurrekontuetan diru kopuru bat onartzea besterik ez zen behar. Proiektu hura zela-eta, gazteen eta Aukeakoen artean ikamika txiki batzuk izan ziren, hasiera baten skate-park hartara sartzeko kiroldegiko txartela behar zutelako. Azkenean, Aukeak instalazio haiek kiroldegia alboan bai, baina kanpoan egitea erabaki zuten.

## 2002KO EKAINEAN, LEHENENGO PAUSOA

Iazko ekainean, Arrasateko skate zale horietako batzuk talde bat sortzeko ahaleginetan hasi ziren. Beharrezkoa zen gutxieneko lagun kopurua batu, agiri guztiak bete eta dagoeneko Gipuzkoako Aldunditik jaso dituzte taldearen sorrera-aktak. Horrekin batera, iazko urritik gaur egunera arte bazkideak lortzen dihardute. Joan den astean, artikulu hau egiteko Arraska taldearen berri eman zigutenean, 77 bazkide zituzten; gehienak, arrasatearrak, baina baita beste debagoiendar batzuk ere: Aretxabaletakoak eta Antzuola-koak, batez ere: "Arraska taldea Arrasaten kokatuta dago eta arrasatearrok eratu dugu, baina, zelanbait, Debagoieneko skate zaleak

ordezkatzten ditugu, ibar osoan ez dagoelako patinatzeko azpiegitura egokirik. Denok ditugu premia berberak; horregatik, beste herrietakoek ere gurekin bat egin dute", azaldu ziguten Arraska taldeko partaideek.

Azken baten, Arraska taldearen helburu nagusia skate-a indartzea eta ezagutzera ematea da. Eta helburu hori lortzeko, ezinbestekotzat jotzen dute ska-


te-park delako egitea: "Une honetan ezin dugu herrian skate-arekin lotutako ezer antolatu, eta ezin dugu herrira ezer ekarri, non egin ez daukagulako. Horregatik, lehenik eta behin, skate-park-a gura dugu, eta hortik aurrera, gauzak antolatu ahal izango ditugu", azpimarratu zuten Arraska taldekoek.

Dena dela, Arraska taldekoak ez dira geldirik egon. Udal aurre-


"Arraska Arrasaten eratu dugu, baina ibarrean ez dago irristatzeko leku egokirik"

"Ezin dugu herrian 'skate'-arekin lotutako ezer antolatu; 'skate-park'-a behar dugu"

"Aspaldian, autoa hartu eta Pasaiara, Mungia edo Donostiara joan behar izan dugu"



Arrasateko eta ibarreko irristalariak honako trukuak egiten dakite: slide, pivot grind, varial eta ollie, besteak beste.



Largo Productions-ek egindako bideo-irudiak, argazki sekuentzia baten. Irudietako protagonista Aretxabaletako Eder Antia da eta *slide* bat egiten ari da Zaldibarko pilotalekuan.

ARRASKA

eneko egin dugu berba batzuekin, eta horretan gabiltza. Aukeak esandakoaren arabera, behin aurrekontua onartuta, gure helburuei gehien egokitzen den proiektua aukeratzeko aukera izango dugu. Banandutako moduez osatuta egon beharrean, bihurtune asko izango dituen zirkuitu bat gurako genuke”.

Bestalde, Arraska taldekoek Udalak egin gura duen *skate-park*-arekin arazo bat ikusten dute: Udalak ez du instalazio estalirik egingo, eta irristalarien uste-tan, Euskal Herrian egiten duen eguraldia kontuan hartuta, hori oztopo handia da.

#### ARRASKAREN LEHENENGO BATZARRA

Joan den zapatuan, otsailaren 8an, Arraska taldeak lehenengo batzarrara egin zuen Monterronen. Batzarraren, arduradunek taldearen helburuak eta Udalarekin dituzten elkarrizketak azaldu zituzten. Horrez gainera, San Juanetarako edo gerorako, herrian *skate*-arekin lotutako ekintzaren batzuk antolatzeak aukerak aztertzen hasi ziren. Dena dela, horren gainean oraindik ez dute ezer zehatzik lotu. Aurrerantzean ekintzaren bat lotzen badute, jakinarazi-ko dizuegu.

#### PATINATZERA, HERRITIK KANPO

Arrasaten ez dago patinatze-ko aukera handirik. Aukera bakarra da Santa Barbararen azpiko aldean dagoen *Uitxurako* plataforma. Urte askoan oso egoera txarrean egon da eta han ezin izan da ezer egin. Izan ere, Arrasateko *skate* zale askok eta askok beste herri batzuetara jotzen dute: “Hurbile-na Aretxabaletara, Oñatira eta Eibarrera jo izan dugu, lur eta espaloi lauen bila, baina herri batzuetan arazoak izan ditugu, bizilagun batzuk kexatu egiten zirelako. Aspaldian, autoa hartu eta Pasaiara, Mungiara edo Donostiara joan behar izan dugu. Autorik ez dutenak, ostera, esku hutsik gelditu izan dira”.

#### 'U' ITXURAKO PLATAFORMA

Santa Barbara azpian dagoen *U* itxurako plataforma urte askoan zahartuta eta apurtuta egon da. Orain dela gutxi, Arrasateko Udalak, Arraskakoei ezer jakinara-zi barik, konpondu eta hobetu egin du: “Ez ditu Arrasateko *skate* zaleen behar guztiak asetzen,

baina bada zerbait. Gainera, lurrean traba egiten zegoen harea kendu egin dute. Gaztetxoek praktika hartu ahal izateko balio du, behintzat. Dena dela, harritzekoa da Arrasateko Udaleko ordezkariak guri ezer ez esatea. Arrasateko Udalarekin elkarrizketak egiten gabiltza eta, bestalde, guk geuk erabili behar dugu; hortaz, zelako *U* itxurako plataforma jarri behar duten gurekin komentatzea normalena iruditzen zaigu”.

Une honetan, *skate-park*-aren proiektuak aztertzen dabilta, udal aurrekontuetan azpiegitura horretarako dirua noiz onartuko duten zain.

Arraskakoek herrian gero-ago eta gazte gehiago irristatzen ikusten dituzte, eta pozik daude. Edozelan ere, neskei ere pausoa emateko gonbita egin diete, neska gutxi ibiltzen da-eta irristatzen. Oraindik ere badaukazu aukera Arraska taldeko bazkide egiteko. Interesa izanez gero, deitu 686 64 10 66 edo 658 74 09 49 telefono zenbakietara.



Argazkian, Arrasateko *skate*-aren hiru promes gazte: Ibon, Dani eta Mikel. Beste gazte asko ere badaude.

ARRASKA

## Aspalditik dago kirol horrekiko zaletasuna herrian

Arraska taldea sortu duten irristalari-ek ez zituzten aspaldiko *sancheski* haiek ezagutu, eta, egia esanda, sasoi hartan ez zuen ia inork zutik irristatzen. Horregatik, Arraska taldearen aurrekariak 1989an finkatu dituzte.

80ko hamarkadaren bukaeran, Arrasate Txanpa denda zabaldu zuten eta ibarreko irristalariendako iraultza txiki bat izan zen. Denda hartan *skate*-arekin lotutako materiala saltzen hasi ziren, eta kirol horren gaineko zaletasuna haziz joan zen. Txanpa dendako arduradunek txapelketak eta erakustaldiak ere antolatu zituzten. *Skate* zaleek diotenez, haiek oso urte onak izan ziren, eta Zaldibarko frontoia gazte irristalariz beteta egoten zen.

1990ean, Udalak Zaldibarren *U* itxurako plataforma txiki bat jarri zuen, baina irristalari ugari zeuden eta ez zegoen guztiendako nahikoa. 1992an, Udalarekin elkarrizketak izan ondoren, Santa Barbaran *U* itxurako beste plataforma bat jarri zuten. Zoritxarrez, zahartu eta apurtu egin zen, eta urtetan ez zuten konpondu.

Txanpa denda itxi egin zuten, eta,

horrekin batera, herrian *U* itxurako plataforma barik geratu ziren. Irri-*st*atzeko zaletasunak beherantz egin zuten.

1998an, *skate*-aren zelanbaiteko berpizkundea izan zen. Bi ekimenek herrian kirol horrenganako zaletasuna areagotzen lagundu zuten: batetik,

### NOTHING WITHOUT

skate & hardcore basque country fanzine Nº 1 Julio 98

225 PELAS



Arrasateko gazte batek Dotakon denda zabaldu zuen. Denda hartan *skate* oholak eta bestelakoak saltzen hasi ziren; bestetik, herriko hainbat gazte *skate*-a eta irristatzea ezagutzera emateko asmoz fantzine bat kaleratzen hasi ziren: *Nothing Without* izena du eta oraindik ere argitaratzen dute. Duela gutxi, aldizkariak bost urte bete zituen. Ekaitz tabernan jaia antolatu zuten eta Bergarako Fly Shit hardcore estiloko taldeak kontzertua eman zuten. Dagoeneko *Nothing Without* aldizkariak zortzi zenbaki kaleratu ditu. *Skate*-aren eta haren gaineko kontuez informatzeaz gainera, aldizkari-ko arduradunek musikaren gainean ere idazten dute. *Skate*-a eta musika dira aldizkari horren ardatz nagusienak. Aldizkariaren eta Arras-*ka*ren bultzatzaileak guztiak berdina ez diren arren, hainbat partaidek bat egiten dute bi ekimenetan.

Arraskakoen uste-tan, *Nothing Without*-i esker herrian *skate*-aren gaineko ezagutza handitu eta zabaldu egin da, eta pozik daude aldizkari horren lanarekin.

POLITIKA/ Talde berria sortu da Arrasaten

# Herri anitza, Herrian hitza izeneko taldea sortu da

ARRASATE PRESS

**Gernikatik Arrasatera Bilgunea aurkeztu zuten joan den domekan, hilaren 9an. Talde horren helburua da, besteak beste, "errepresioaren aurrean forma berriak aurkeztea". Jende dezente batu zen aurkezpenean, Herriko Plazan.**

Horrela, plazan Euskal Herriko mapa osatu zuten herrialdez herrialde eta gero, trikitilarien, dantzarien eta bertsolarien saioak izan ziren. Aurkezpen ekitaldiaren une garrantzitsuenetako bat udaletxeko balkoitik pankarta bat eskegi zutenekoa izan zen. Arrasaten sortu den talde horren izena irakur zitekeen: Herri anitza, Herrian hitza.

Taldeko kide Juan Luis Arexolaleibak idatzi bat irakurri zuen. Besteak beste, honakoa esan zuen: "Gure gainean ditugun estatu bi, erregimen eskubitarrez zuzenduak, errepresio etengabea ari dira garatzen. Mila bider esandako gezurrak, egia bihurtzen dituzte, gure aurka. Pentsamendu bakarra nahi dute inposatu. Aniztasuna nahi digute ezabatu. Honek, berriz ere, erantzun beharra sortzen digu. Ideia berriak asmatu beharra daukagu. Iniziatiba



Jende dezente batu zen taldearen aurkezpen ekitaldian.

berriak garatu behar ditugu".

Horren harira, Xabier Zubizarretak honakoa adierazi zuen: "Helburua da Euskal Herria jasaten ari den errepresio basatiaren aurrean forma berriak asmatzen joatea; Euskal Herriak eta Arrasateko herriak aukera izan dezan nahi ditugun aukerak defenditzeko". Gaineratu zuen, "horretarako tresna berriak sortu behar direla eta talde horrek egingo duena

dela lan horri babes eskaini". Talde hori arrasatearrendako erreferentzia izatea ere gura dutela aipatu zuen.

Hauteskundeen gainean honakoa esan zuen: "Ezker abertzalea aurkeztuko da. Beste gauza bat izango da Espainiako gobernuak zein postura hartzen duen eta zertan ahaleginduko den gure kontra. Baina dudarik ez dago ezker abertzalea aurkeztu egingo dela".

POLITIKA/ Andoingo atentatua

# Atentatua gaitzesteko mozioa aurkeztu du PSE-EEK

Joan den zapatuan, hilaren 8an, Joseba Pagazaurtundua andoingindarra hil zutela-eta, Udaleko Zinegotzi Sozialisten Taldeak mozioa aurkeztu dio udalbatzarrari. Zazpi puntutan honakoa eskatzen dute, oro har: hilketa gogor gaitzestea; Arrasateko Udalak elkartasuna adieraztea Joseba Pagazaurtunduen familiari eta indarkeria jasaten duten gainerakoiei;

nork bere ideiak libre adierazteko askatasuna; ETari indarkeria alde batera uzteko; ETaren indarkeria gaitzesten ez duten ordezkari publikoak zentsuratzea eta eurekiko kolaborazioa moztea gogor. Eta, lehendakariari, agintari izanda, gainerako eskaera alderdikoiak alde batera utz ditzala, terrorismoari aurre egiteko.

Mozioa lantzeko ezohiko bil-

kura eskatu dute sozialistek. Gobernu batzordeak erabaki du datorren egunean, hilaren 20an, izango dela. Horren harira, alderdi sozialistako bozeramaile Paco Garciak zera esan zion GOITBri: "Mozioa astebete barru edo hila-bete barru lantzeak ez dauka baliorik. Mozioarekin gizartea esnarazi gura genuen. Une gogorra da. ETaren hilketekin badakigu zer gertatzen den: hiru egun txar, eta gero inor ez da gogoratzen hildakoekin ezta haren senitartekoeekin ere". Gaineratu zuen herriak ezetz esan behar duela; demokraziaren oinarria dela jendeak pentsatzen duena adierazteko gaitasuna izatea eta herri honetan jendea beldurrez bizi dela. Horrekin batera honakoa esan zuen: "Beste behin, ETako hiltzaileek euren moduan pentsatzen ez duen pertsona bat hil dute. Herri honen askatasunarengatik borrokan ari garenak sistematikoki hiltzen gaituzte. Hori oso larria da, baina, era berean, larria da demokraziako hainbat alderdiren jarrera: beste alde batera begiratzen dute.



Paco Garciak adierazpen askatasunik eza kritikatu zuen, besteak beste.

LABUR

## Hil bukaerarako bukatuta egon beharko da Gernika Oinezkoen Zumardia

Musakolatik Erguineraino oinez joateko egiten ari diren bidea otsailaren 28rako egon beharko da. Bi aldiz atzeratu behar izan du Udalak lanok bukatzeko epea. Izan ere, berez, lanok iazko azaroan bukatuta egon behar ziren. Baina, atzerapenarekin zebiltzala-eta, lanok egiten ari den enpresak epe muga luzatzea eskatu zuen. Udalak onartu egin zuen eskaera eta urtarrilaren 31 ipini zuen muga moduan. Baina, epe hori ere ezin izan zuen bete Construcciones Galdiano enpresak, eta ondorioz, otsailaren 28ra arte luzatu zioten epea. Kontuak kontu, dagoeneko bukatze beharko luke pasealekuak, baina, lanon itxuragatik badirudi zaila izango dela hori lortzea. Hori gertatuz gero, enpresari bigarren zigorra ezarriko dio Udalak.

## Gehiegi lokazten dela-eta, Arruenako zelaia "konpondu" egingo dute

Holiday zirkua Arrasaten egon zenean, Udaleko Zerbitzu Teknikoek ikusi zuten Arruenako zelaia larregi lokazten zela. Egoera aztertu eta gero, konturatu dira sareta belarrez gainezka dagoela. Horren eraginez, euria egiten duenean, urak gainezka egiten du saretatik eta poliki-poliki zelai guztia lokaztu egiten da. Hori konpontzeko, Gobernu batzordeak oraingo astean erabaki du uda garaian, euririk egiten ez duen aldiren baten, belarra sikatzeko utziko dutela, eta gero, soberan dagoena moztu egingo dute. Horren ostean, berriro ere belarra hazten utziko dute, baina ez larregi.

## Eskualde Egiturako Lurraldearen Zatik Planari alegazioak aurkezteko epea

Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Debagoienako duten plana ibarreko udaletxeetan dago, gura duenaren dako ikusgai. Horrekin batera, plan horri alegazioak aurkezteko epea ere zabaldu dute. Hain justu ere, hilabete inguruko epea izango da horretarako. Hortaz, norbaitek planarekiko desadostasun bat izanez gero, oraintxe aurkeztu beharko du hori.



## 6.031 kilo jaki Sahararako

Arrasaten 6.031 kilo jaki batu dituzte Saharara bidaltzeko: gutxi gorabehera, 2.000 kilo lekale, 1.600 kilo arroz, 1.000 kilo pasta, 500 kilo azukre, 400 kilo olio, 250 kilo atun, 40 kilo zereal eta beste 50 kilo denetik. Eguaztenean batu zituzten jakiok kamioian, eta Usurbilgo Belartza industrialdera eramanean zituzten. Han gordeko dituzte Gipuzkoan batutako jaki guztiak eta bihar, zapatua, Sahararako bidea hartuko dute. Elkarte hauek hartu dute parte: Serso San Viator, Caritas, MGI, Komite Internazionalistak, MSH, Harreman, ikastetxeak, San Andresko parroquia eta elkarteak.



HIRIGINTZA/ Bedoñaberen inaugurazioa

# San Andresko Bedoñabe eskola inauguratu dute

UBANE MADERA

Arrasate Herri Eskolaren zati den Bedoñabe ikastetxea inauguratu zuten joan den egubakoitzean, hilak 7. Jende dezente batu zen ekitaldian: besteak beste, Jaurilaritzako eta Udaleko ordezkariak eta Arrasate Herri Eskolako kideak.

Dantzariak, kantariak, bertsolariak eta lancha. Denetarik izan zuten barikuan San Andres auzoko herri eskolan. Hori guztia ikusten eta probatzen, berriz, jende dezente batu zen. Horien artean, Herri Eskolako ordezkariak ere izan ziren, jakina. Horrela, Agurtzane Barrutiak, Arrasate Herri Eskolako ikasketa buruak hitza hartu zuen, eta besteak beste, esan zuen proiektu berritzailea egin gura dutela; beti ere, helburu nagusia ahaztu barik: ikasleak aniztasunean hazi eta osotasunean garatzea.

## EGOKITZE LANAK

Ekainean hasi zituzten Bedoñabe ikastetxeko lanak; eta iraileko bukatu egin zituzten. 240.000 euro pasatxo inbertitu dituzte



Joan den egubakoitzean, hilak 7, inauguratu zuten Bedoñabe.

lanotan. Oro har, eskola ume txikiendako egokitu dute. Izan ere, Bedoñabeko ikasleak 2tik 6ra arteko umeak dira.

Arrasate Herri Eskolako zuzendari Arantza Mendarozketak jakinarazi digunez, sarrera nagusia egokitu dute baita psikomotrizitate gela eta pasilloak

ere; horrez gain, fatxada konpondu egin dute eta 2 urteko umeen geletan obra dezente egin dute. Horrez gain, eraikina goitik behera margotu dute eta harlausak ere ipini dituzte beharrezkoa zen lekuetan. Edozelan ere, 2003an konponketa txiki gehiago egingo dituztela ere iragarri zuen.

## Alderdi sozialistaren jarrera kritikatu du Ezker Batuak

UBANE MADERA

Arrasateko Ezker Batuaren kontra alderdi sozialistak abiarazitako kanpaina salatu du Ezker Batuak berak. Joseba Ugaldek hauteskondeen testuinguruaren barruan kokatu ditu kritikok.

Hala jakinarazi du Ezker Batuak prentsara bidalitako ohar baten. Horren arabera, Joseba Ugaldek adierazi zuen alderdi sozialista ez dela gai izan Ezker Batuak egingo lan politiko, sozial eta instituzionala onartzeko. Gaineratu zuen alderdi sozialistak lortu gura duela iritzi publikoa nahastea hainbat gaitan, hala nola: normalizazio politikoa, Iraken gerra edo Prestige-ren arazoa.

### BATASUNAREKIKO KONPROMISOA

Horrez gain, Batasunarekiko konpromisoa berretsi zuen, "legegin-

tzaldiaren amaierara arte behintzat. Izan ere, arrasatearrendako politika progresisten alde egiten duten Batasunaren printzipio pragmatikoekin bat egiten dute". Horrekin batera, adierazi zuen Ezker Batuak beti gaitzetsi izan duela terrorismoa, nahiz eta gobernu kidearekin ados ez egon.

### ELKARRIZKETARIK EZ DUTE GURA

Bestalde, Joseba Ugaldek esan zuen "PSE-EEren diskurtsoak adostasunaren eta elkarrizketaren bidea baztertu egiten duela Arrasaten. Eta terrorismoa eta biktimen egoera latza Ezker Batuaren kontra egiteko aprobetxatzen dituela". Era berean, gogoratu zuen joan den asteko udalbatzararak Iraken gerraren kontrako mozioa onartu zuela eta mozio horretan, besteak beste, indarkeria baztertu zutela alderdi guztiek. Joseba Pagazaurtunduaren hilketa ere gogor gaitzetsi zuen.

## Errepideak konpontzeko eskatu dio Udalak Diputazioari

UBANE MADERA

Arrasate barruko zenbait errepideren egoera nahiko eskasa dela-eta, jende dezentek salaketa aurkeztu du Arrasateko Udalean. Bereziki, Garagartzara doan errepidean daude arazoak.

GI-2620 izeneko errepidean zulo dezente sortu dira azkenaldian. Muxibartik Garagartzara doan bidea da hori, hain zuzen ere. Kontua da, errepide horren egoera eskasa dela-eta, zenbait partikularrek kalteak izan dituztela euren ibilgailuetan. Eta, kalte ordainak eskatzen, salaketak (ahoz zein idatziz) eta bi idatzi aurkeztu dituzte Arrasateko Udaltxean.

Kontua da aipatutako errepide hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren ardurapean dagoela, eta, horren ondorioz, hari dagokio

dauden arazoak konpontzea. Hala izanda, oraingo asteko Gobernu batzordeak erabaki du Foru Aldundiari exijitzea errepide hori lehenbailehen zola dezan.

Era berean, Diputazioa bera arduratuko da partikularrek aurkeztu dituzten salaketekin.

### KONPONKETAK

Edozelan ere, Diputazioak konponketa horiek egin artean errepideak bere horretan ez uztearren, oraingo astean udal lantaldea behin-behineko zenbait konponketa egiten ibili da. Hain justu ere, Alfontso VIII.a kaleko, Gautxori baserriaren inguruko eta Iturripe inguruko errepidean zeuden zulo batzuk konpondu dituzte.

Horrez gainera, Udaleko Zerbitzu Teknikoek jakinarazi digutenez, datorren astean berriro ere landuko dute gai hori Gobernu batzordean.



## Laubide aparkalekuko erantzukizunaren gainean

Laubide aparkalekuan egon daitezkeen kalteen erreklamazioak direla-eta, kasu horretan zer egin erabaki du Udalak. Hau da, zeinena izango den kalte horien erantzukizuna. Hori erabakitzeko, gaia hori arautzen duen legea ikusi eta lege berori ezartzea erabaki du Arrasateko Udalak. Horren arabera, aparkatutako autoa zegoen egoera berean itzuli behar dute, autoari modu iraunkorrean itsatsitako elementu guztiekin. Itsatsita ez dauden edo autotik atera ahal diren elementuekin, berriz, norbera arduratu beharko da eta elementu horiekin zerbait gertatuz gero (lapurretaren bat edo), erantzukizuna ez da Udalarena izango. Horrekin batera, aparkalekuaren arauak, ordulegia eta prezioak argi eta garbi erakutsi behar dira.

## LABUR

### Maiatzeko hauteskondeei begira talde politikoak eratu guran

Maiatzaren 25eko hauteskundeetan aldaketa dezente ikusiko ditugu Arrasaten. Alde batetik, ezker abertzaleak hauteskundeetara aurkezteko asmoa dauka, eta ahalegin guztiak egingo ditu hori lortzeko; baina, Garzonek abiarazitako ilegalizazio prozesua dela-eta, oraindik ez dute talderik zehaztu. Bestalde, EAJ eta EA alderdien buruzagitzek erabaki zuten alderdiok talde bakarra osatuko dutela. Dena dela, Arrasateko EAko ordezkariak adierazi digutenez, Arrasaten oraindik ez dute gai hori landu. EAko ordezkariak EAJren proposamenaren zain daudela esan digute. EAJko ordezkariak, berriz, alderdiko zuzendaritzaren zain daudela. Horrez gain, Aralar alderdia ere aurkeztuko da Arrasaten. Jakinarazitakoaren arabera, herriko zenbait talderekin berbetan ari dira koalizioa osatzeko ahaleginetan.



## DIETA OREKATUAREN EZAUGARRIAK

**A**rizmendi Ikastolako Gazteluondo guneko laugarren mailako ikasleek dieta orekatuak zelakoa izan behar duen landu zuten aurrekoan. Denok dakigu eguneko jatorduak errespeta-tu eta ondo jatea garrantzitsua dela, baina askotan gaitza izaten da hori betetzea. Gazte-luondoko ikasleek ondo baino hobeto ikasi dute dieta orekatuaren ezaugarri garrantzitsuenak zeintzuk diren. Teoria guztia ondo ikasi eta gero, ikasgaia praktikara eraman zuten, eta gosari orekatua egin zuten. Ea ikasgai horretan ikasi dutena egunero betetzen duten.



## GONTZA ETA OLAIA

**I**txura horrekin harrapatu genuen bikote hau joan den astean. Haxe euren lagunek bidalitakoa: "Zorionak, bikote! Ziur zaudete zapatuan egin behar duzuenarekin? Oraindik damutzeko garaiz zaudete! Ondo-ondo pasatu New Yorken, baina kontuz ibili Georgerekin".



## JAIK GESALIBARREN

**J**oan den asteburuan, Santa Ageda jaiak ospatu zituzten Gesalibar auzoan. Besteak beste, gazteendako jolasak izan zituzten, eta egubakoitzeko auzo afarian Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertotan ibili ziren. Horrez gain, zapatu gauean, hainbat gazte batu ziren herriko musika taldeen kontzertua entzutera.


## Kenci Arrasatek gero eta gaitzago du igoera faserako sailkatzea

XABIER URZELAI

Kenci Arrasatek 79-63 galdu zuen joan den zapatuan Antonio Erro y Eugi taldearen kontra, eta mondragoetarrek gero eta gaitzago dute igoera faserako sailkatzea. Arrasateko taldea zazpigarren postuan dago, eta lehenengo sei taldeak sailkatzen dira igoera faserako.

Lehenengo fasea amaitzeko bost partidu baino ez dira geratzen, eta arrasatearrek ezin dute hutsegite gehiagorik egin. Joan den astean, nafarrak erraz nagusitu ziren, Arrasateko taldeak behar den moduan jokatzeko oztopo asko izan zituen-eta. Iker Zubiria entrenatzailea zigortuta zegoen, eta harmailetatik zuzendu behar izan zuen taldea. Horrez gainera, Iker Errastik, gripeaz, eta Jagoba Gamarrak, orkatilan min daukalako, ezin izan zuten jokatu.

Hasieratik aurreratu zen Antonio Erro y Eugi taldea. Lehenengo laurdena 22-9 amaitu zen. Bigarren laurdenean, gauzak ez ziren askorik aldatu, eta nafarrek 13 puntuko aldeari eutsi zioten. Hirugarren laurdenean, baina, nafarrek sekulako astindua eman zieten arrasatearrei: 31 puntuko



ARRASATE PRESS

Joan den denboraldian, Kenci Arrasatek irabazi egin zuen Kalagorriren kantxan.

aldea eskuratu zuten. Alde horrekin, etxean jokatzeko zutenek behera egin zuten, eta Kenci Arrasateko mutilek aldea murrizteko aprobetxatu zuten hori.

### ORAINDIK AUKERAK DAUDE

Kenci Arrasate zazpigarren dago sailkapenean, eta lehenengo sei taldeak sailkatzen dira igoera faserako. Seigarren sailkatua Ursulinas taldea da, eta talde nafarrak Kenci Arrasatek baino

partidu bi gehiago irabazi ditu. Mondragoetarrek geratzen diren bost partiduetatik lau beheko postuetan dauden taldeen kontra jokatu behar dituzte, eta oraindik badaude aukerak igoera faserako sailkatzeko. Hori bai, hutsegite bat eta Arrasatek beheko mailara ez jaisteko liga jokatu beharko du.

Oraingo asteburuan, Errioxako Kalagorri taldea izango da kontrarioa.

## 'Kirola Euskaraz' programako fitxa berriak eta bekak, gertu

X.U.

*Kirola Euskaraz* programaren barruan, fitxa didaktiko berriak eta hurrengo aldirako bekak aurkeztu zituzten atzo Eibarren. *Kirola Euskaraz* programa Deba ibarreko kirola euskalduntzeko helburuarekin jarri zuten abian, eta urtero fitxa didaktikoak prestatzen dituzte, monitore eta irakasleek erabil ditzaten. Horretarako, 3.000 euroko bekak eskaintzen dituzte. Oraingo honetan, oinarritzko soinketaren, natura ekintzaren eta xakearen gaineko

fitxak aurkeztu dituzte. Atzoko aurkezpenean, kirolarekin harremana duten hainbat lagun elkartu ziren. Xakearen alorrean, Arrasateko taldeko Josu Tornay mintzatu zen. Tornayk esan zuen horrelako ekintzak aurrerapauso garrantzitsua direla, xakean ez dago-eta euskaraz idatzitako materialik. Era berean, kirol fitxak aurkezteaz gainera, *Kirola euskaraz* programaren antolatzaileek beka berrien epea amaitzear dagoela gogorazi zuten. Otsailaren 25ean aurkeztu beharko dira fitxa berriak.

PILOTA

### Senior mailako pilotariak hiru partidu jokatu eta hirurak irabazi dituzte

Arrasateko senior mailako pilotariak bikain hasi dute Udaberri Txapelketa. Zugastik eta Lazkanok orain arte hiru partidu jokatu dituzte, eta hirurak irabazi dituzte. Joan den egubakoitzean, Uarkapen jokatu zuten, Usurbilgo pilotarien kontra, eta mondragoetarrek 22-11 nagusitu ziren.

Gaspe mailako pilotariak ere ondo hasi dute txapelketa. Agirrek eta Arroyabek hiru partidutatik bi irabazi dituzte. Joan den astean, Andoaingo pilotarien kontra jokatu zuten, eta mondragoetarrek erraz nagusitu ziren, 22-4. Gaur, egubakoitza, senior mailako pilotariak Urretxuko pilotarien kontra jokatuko dute, Uarkapen, arratsaldeko zazpi eta erdietan.

## FOTOKIROLA



### Arrasatek partidu kaskarra egin zuen Elorrioren kontra (0-10)

Joan den zapatuan, igoera faseko lehenengo norgehiagoka jokatu zuten Arrasateko mutilek, orain dela bi aste Eibarren kontrako partidua atzeratu egin zuten-eta. Badirudi atsedanak ez ziela on egin mondragoetarrei, ez zuten-eta benetako maila erakutsi. Egia da Arrasateko taldean jokalarik garrantzitsu batzuk falta zirela, baina mondragoetarrek behar baino gehiago nabaritu zuten hori. Elorrio 0-10 nagusitu zen, entsegu, zigor kolpe eta transformazio bana egin da. Arrasatek oraingo asteburuan Santanderko Juventud taldearen kontra neurtuko ditu indarrak. Oraingo ligan ez dago talde errazik, eta, gainera, mondragoetarrek ez dute Santanderko taldea ezagutzen. Norgehiagoka zapatuan izango da, Santanderren.

## FOTOKIROLA



### AGR Arrasatek justu-justu irabazi zuen

Bernardo Balerdiren mutilek 24-23 irabazi zioten Leitzarani. Arrasatearrek ez zuten ondo jokatu, eta denbora osoan atzetik izan ziren markagailuan. Azken minutua erabakigarria izan zen, etxeakoak gol bateko aldearekin nagusitu ziren-eta. Oraingo asteburuan, goiko argazkian azaltzen den Urola taldearen kontra jokatuko dute. Bestalde, Pitxi Herreroren mutilek 25-19 galdu zuten Urnietaren kontra. Urnieta Arrasatekoen kontzentrazioa apurtzen ahalegindu zen, baita lortu ere.



MIKEL ARANBURU

Zestoak uste baino zailtasun handiagoak ipini zizkion Mondrari; hala ere, etxeokoa nagusitu ziren, Iker Lópezen gol bati esker.

FUTBOLA

# Urola kanpoan eta Zumaiako etxean: lehenengo postuak daude jokoan

Datozen bi asteburuetan aurreneko postuak guztiz alda daitezke

XABIER URZELAI

Denboraldi amaiera ez bada ere, Mondrarendako urteko partidu garrantzitsuenetakoak izango dira oraingo asteburukoak eta hurrengoak. Oraingo asteburuan, Urola talde sendoaren kontra jokatuko dute, Zumarragan. Eta hurrengo asteburuan, liderra izango da Atxabalpen.

Mondrak partidu baten ere ezin du kalerik egin. Horrela ikusita, denboraldiko partidu guztiak dira garrantzitsuak. Edozelan ere, ligak aurrera egiten duen neurrian, goiko postuetan dauden taldeen arteko partiduak erabakigarriak izaten dira; puntu horiek izaten dira askotan lehen edo bigarrena nor izango den

erabakitzen dutenak. Mondrak Urolaren kontra jokatu du oraingo asteburuan. Urola ez da liderra, baina une honetan, liderak baino min handiagoa egin dezake. Partidua, baina, ez da Atxabalpen izango, Zumarragan baizik; hortaz, Mondra da Zumarraga aldean min handia egin dezakeen taldea.

**ATXABALPEKO ZELAIA, NEGARGARRI**

Joan den asteburuan, Mondrak Zestoaren kontra jokatu zuen Atxabalpen. Arrasatearrak 1-0 nagusitu ziren, baina etxeokoa ezin izan zuten gura moduan jokatu, futbol zelaia oso txarto zegoelako. Ulertezina da oso gutxi erabiltzen den futbol zelaia horren txarto egotea. Izan ere, hamabostean behin erabiltzen

dute belarrezko zelaia, eta talde nagusiak bakarrik jokatzen du han.

Arrasateko taldeari asko exijitzen zaio. Mondrak preferente mailara igo behar du aurren; hori da helburu nagusia. Eta horretarako dabilta Josu Zubiriaren mutilak lanean. Exijitzen zaionari, lana ondo egiteko erraztasunak eman behar zaizkio, eta Atxabalpe futbol zelaia ez da erraztasuna, traba baizik. Mondrak futboleko eginez irabazten ditu partiduak, baina futbol zelai hartan ezin da futboleko egin.

Datorren asteburuan, liderra izango da Atxabalpen, eta Mondrak dakien moduan jokatzen badu, Zumaiakok sufritu egingo du gurean. Ortuan, baina, ezin futboleko egin.

# Jonathan Pérez Sevillan izango da, Espainiako Promesen Txapelketan

Jonathan Pérez asteburuan Sevillan jokatu du Espainiako Promesen Txapelketan izango da. Real Sociedad taldean dabilen pertika-jauzilari arrasatearrak orain dela hiru aste bere marka ondu zuen: 4,90 metroko jauzia egin zuen. Hala, mondragoetarra marka hori hobetzeko asmoz joango da Sevillara. Arrasatearraren helburua bost metroko jauzia egitea da, eta Sevilla esze-

natoki bikaina izan daiteke marka hori lortzeko.

**EUSKADIKO KROS TXAPELKETA**

Joan den astean, Euskadiko Kros Txapelketa jokatu zen Azpeitian, eta Arrasateko korrikalari beterranoek lasterketa polita egin zuten. Emakume beterranoetan, Marifran Alonso seigarrena izan zen eta Mari Jose Gil hemeretzigarren postuan iritsi zen helmuga.

Gizonezko beterranoetan, Javier Mentxaka hamargarrena izan zen eta Cesar Díez, 32.a.

Bestalde, etzi, domekan, Eskola Arteko Txapelketako bigarren fasea jokatu da Anoetan. Lehenengo fasean sailkatu diren ikasleak izango dira aurrez aurre. Arrasateko hainbat atleta gazte izango dira domekan Anoetan. Ikusi egin behar hurrengo fase-rako sailkatzen diren.

## ZALDIBARARETOFUTBOLA

### EMAITZAK

**A MULTZOA**

- Saukelu Scream - You Know! . . . . . 3-2
- Etixerat - NS/NC . . . . . 7-4
- Komando Alpagat - Iritz Taberna . . . . . 2-7
- Al Kaeda - Lasagabaster . . . . . 0-1
- Makanaki - Abocajarro . . . . . 4-1
- Betrayer - Rayo Aldeano . . . . . 1-0
- Maldifa's - Goma-2 . . . . . 0-1

**B MULTZOA**

- El Ekipo A - Aurrera Bolie . . . . . 0-7
- AT Celaya - Fuxxion . . . . . 5-1
- Etxinai! - Whiskeria . . . . . 7-6
- AC Surcos - Estu Ta Larri . . . . . 18-1
- Bikain Akademia - Fraguel Gol . . . . . 5-5
- Koka Juniors - Dribling.es.vg . . . . . 2-1
- Billy & The cowboys - Saloga . . . . . 1-0
- Aurrera Bolie - AC Surcos . . . . . 2-2

### PARTIDUAK

**OTSAILAK 15, ZAPATUA. EPAILEAK**

- 09:50: Saukelu Scream - NS/NC. **Makanaki**
- 11:00: Makanaki - Goma2. **Saukelu Scream**
- 12:00: Estu Ta Larri - AT Celaya. **Goma2**
- 13:00: K Alpagat - Abocajarro. **AT Celaya**
- 14:00: El Ekipo A - Fuxxion. **Abocajarro**
- 15:00: Aurrera Bolie - Whiskeria. **El Ekipo A**
- 16:00: Etxinai! - Fraguel Gol. **Whiskeria**
- 17:00: Etixerat - Lasagabaster. **Etxinai!**
- 18:00: You Know - Iritz Taberna. **Etixerat**

**OTSAILAK 16, DOMEKA**

- 11:50: Koka Juniors - Billy & The... **Dribling**
- 13:00: AC Surcos - Dribling. **Billy & The...**

Deskantsua: Betrayer, Bikain Akademia.

### SAILKAPENA

**A MULTZOA**

- 1. Iritz taberna . . . . . 17 11
- 2. Saukelu Scream . . . . . 16 11
- 3. You Know! . . . . . 16 11
- 4. Etixerat . . . . . 14 11
- 5. Makanaki . . . . . 14 11
- 6. Lasagabaster . . . . . 13 11
- 7. Betrayer . . . . . 13 11
- 8. Goma-2 . . . . . 13 11
- 9. Komando Alpagat . . . . . 10 11
- 10. NS/NC . . . . . 9 11
- 11. Abocajarro . . . . . 8 11
- 12. Al Kaeda . . . . . 5 11
- 13. Maldifa's . . . . . 3 11
- 14. Rayo Aldeano . . . . . 3 11

**B MULTZOA**

- 1. AC Surcos . . . . . 21 11
- 2. Dribling.es.vg . . . . . 16 11
- 3. AT Celaya . . . . . 15 11
- 4. Aurrera Bolie . . . . . 14 11
- 5. Koka Juniors . . . . . 14 11
- 6. Bikain Akademia . . . . . 14 11
- 7. Fraguel Gol . . . . . 12 11
- 8. Fuxxion . . . . . 12 11
- 9. Etxinai! . . . . . 11 11
- 10. Billy & The cowboys . . . . . 8 11
- 11. El Ekipo A . . . . . 7 11
- 12. Estu Ta Larri . . . . . 6 11
- 13. Whiskeria . . . . . 2 11
- 14. Saloga . . . . . 2 11

## LEHENENGO FASEA ORAINDIK EZ DA AMAITU

**AL KAEDA KALERA, PARTIDURA EZ AZALTZEAGATIK**

Lehenengo faseko amaiera gero eta gertuago dago, eta talde batzuk, sailkatzeko aukerarik ez daukatela ikusita, ez dira partidura azaltzen. Joan den asteburuan, Al Kaedakoak ez ziren partidura azaldu, eta txapelketatik kanpo geratu dira. Horrez gain, Abocajarro taldeko jokalaririk batek partidu bateko zigorra bete behar du.

**AC SURCOS, ORAINGOZ TXAPELKETAKO TALDE INDARTSUENA**

Hamaika partidu jokatu dira dagoeneko, eta oraingoz Zaldibarko Txapelketako talde indartsuena AC Surcos da. B multzoko lehenengo postuan dagoen taldeak ez du partidurik galdu, eta bakarra berdin du. Joan den astean, 18-1 irabazi zion Estu Ta Larri taldeari. Kontuan hartzeko datuak dira, hortaz.

## KIROLAGENDA

**JOKATZEKOAK**

**FUTBOLA**

- Mondra - Zestoa**  
Erregionala. Zapatuan. 16:30. Atxabalpen.
- Mondra - Ordizia**  
Ohor gazteak. Domekan. 11:30. Atxabalpen.
- Bergara - Arrasate**  
Kadeteak. Domekan. 11:00. Ipintzan.
- Ikasberri - Arrasate B**  
2. Kadeteak Kopa. Zapatuan. 10:00. Garmendipen.
- Urki - Mondra**  
Neskak. Zapatua. 16:00. Elbar.

**SASKIBALOA**

- Antonio Erro y Eugi - Kenci Arrasate**  
Seniorrak. Zapatuan. 19:45. Azpilagañan.
- Kenci Arrasate - Easo B**  
Junior giz. Zapatuan. 16:00. Musakolan.
- Kenci Arrasate - La Salle**  
Kadete mut. Zapatuan. 12:00. Musakolan.
- Bera Bera - Kenci Arrasate**  
Kadete neska. Zapatuan. 16:00. Manteon.

**ESKUBALOA**

- AGR Arrasate - Leitxaran**  
Seniorrak. Zapatuan. 18:00. Iturripen.

**Urnietako - Arrasate**

- 2. seniorrak. Domekan. 12:00. Udal Kiroldegian.

**Gatz Museoa Jakion - Arrate**

- Gazteak. Zapatuan. 16:00. Iturripen.

**Gatz Museoa Jakion - Urola**

- Kadeteak. Domekan. 11:15. Iturripen.

**PILOTA (UDABERRI TXAPELKETA)**

- Arrasate - Andoain**  
Gazte maila. Egubakoitza. 19:30. Uarkapen.

**Arrasate - Usurbil**

- Seniorrak. Egubakoitza. 20:00. Uarkapen.

**ERRUGBIA**

**Arrasate - Elorrio**

- Seniorrak. Zapatuan. 16:00. Garagartzan.

**EMAITZAK**

**PILOTA (UDABERRI TXAPELKETA)**

- Gazteak: Tolosa - Arrasate. . . . . 22-19
- Seniorrak: Tolosa - Arrasate. . . . . 4-22

2003-2004



Mesedeetako Andra Maria

IKASTETXEA

943 79 27 73



Haur Hezkuntza  
0-2 urte

67€ hilean



Lehen Hezkuntza

Haur Hezkuntza  
2-6 urte



eredua **D**



DBH

%50

-erainoko  
deskontua

eguzkitako  
betaurrekoetan

Eta Inauterietarako betaurrekoak 6€

R.P.S. Nº 164/99 I.L.G.

**MULTIOPTICAS**

J. Carlos Guerra 1 • Tel. 943 79 29 25 • ARRASATE



**KULTURA/** Yllana antzerki taldeak 'Spingo' ikuskizuna aurkeztuko du domekan Amaia Udal Antzokian

# Mimoa, dantza eta akrobaziak uztartzen dituen 'Spingo' antzezlan, domekan

IKER BARANDIARAN

Etzi, domeka, Madrilgo Yllana antzerki taldeak *Spingo* antzezlan eskainiko du Amaia Udal Antzokian, 19:30ean. Hain zuzen ere, talde madrildarraren seigarren lana da *Spingo*. Oso erritmo biziko esketx umoretsuak eskainiko dizkigute, berba egin barik.

Madrilgo Yllana antzerki taldeak bere seigarren lana aurkeztuko du Amaia Udal Antzokian. Domekan izango da emankizuna, 19:30ean. Ikuskizun berriak *Spingo* izena du eta mugimenduan oinarrituta dago. Aurreko ikuskizunetan moduan, *Spingo* antzezlanean, isilik, berba egin barik, baina beti zaratsatu, Yllanak onomatopeiaren hizkuntza lantzen du eta edozer gerta daitekeen mundu surrealista bat eraiki du.

## ESKETX NAHASPILATSU BARREGARRIAK

Yllana taldearen azkeneko ikuskizunak, aurreko guztien moduan, ikusleak barrez leheretzea du helburu. Horretarako, hainbat esketx prestatu dituzte, egunerokotasunean oinarrituta daudenak, baina hori bai, istorio nahaspilatsu samarrak kontatzen dituztenak: diskoteketako *ligoteoa*, tabakismoa, giza organoen trafikoa...

Yllana taldekoek istorio eta testuinguru horiei kutsu surrealista ezartzen diete. Hain zuzen ere, sendagile sadiko batek operatzen duen erretzaile nekazina; antzezle baten lebitazioa; *fox-trotte*-aren erritmoan bere burua hiltzen duen lagun bat; edo dantzaleku baten gertatzen den sedukzio eszena bitxia. Horri guztiari gaineratu behar zaio Pragako antzerki beltzari egiten dioten omenaldi xumea, txotxongiloen bitartez.

Yllana taldea ez da berria lanbide horretan. 1991n sortu zenetik hona ondo erakutsi dute zelan sorrarazten duten ikusleengan barrea, ahoa zabaldu barik edo, behintzat, berba egin barik. Oso estilo zuzena eta gatz handia dute, eta kolpe, salto, oihi, mimo eta musikarekin janzten dituzte euren ikuskizunak, gero eta umore beltz handiagoa dutenak.

## LEHENENGO ALDIZ, EMAKUMEAK

Arlo artistikoari dagokionez, ikuskizuna ere oso zainduta dago. Taldeak *casting*-ean lan handia egin du, eta Yllanaren ikuskizun baten, lehenengo aldiz, emakumeek hartuko dute parte. Horrez gainera, *Spingo* antzezlaneko sei antzezleek keinuekin lan egiteko gaitasun handia erakutsi dute. *Clown* teknikarekin lagunduta, dantzari eta akrobata lanetan ere ibiliko dira.

*Spingo* lana 2001eko urrian



Yllana antzerki taldeko partaideek oso esketx xeble eta barregarriak antzeztuko dituzte.

*Madrilgo Yllana antzerki taldeak seigarren lana aurkeztuko du, 'Spingo' izenekoa*

estreinatu zuten, Alcorcongo (Madril) Buero Vallejo antzokian, Madrilgo hegoaldeko jaialdi internazionalen. Eta oso harre-  
ra ona izan zuen. Orduetik hona hainbat antzokitan izan dira, eta oso pozik daude taldekideak.

*Lehenengo aldiz, Yllana taldearen ikuskizun baten emakumeek ere egingo dute lan*

Berbarik erabiltzen ez duten arren, keinuekin eta zaratekin, oso modu argian, sinesgarritasun handia duten eszenak irudikatzen dituzte Yllana taldekoek. Zentzuetara zuzen-zuzen doan umore ikusgarria, konplexu bari-

*Mugimenduan dago oinarrituta 'Spingo' lana, eta esketx umoretsuz beteta dago*

koa eta ekimentsua egiten dute, eta ikusleen laguntza jasotzen dute. Antzezleak eurek dibertitzea dute helburu nagusi, eta, hori lortuta, erraztasun handiarekin ikusleei ere barregura eragiten diete Yllanakoek.

## Eskola handiko antzerki taldea gurean

Yllana antzerki taldea 1991n sortu zuten, Madrilan, eta orduetik hona ez dira geratu. 1991n, *Muuu!* antzezlan estreinatu zuten. Lan hura zezenketaren gaineko parodia zen. Matxismoari, ustezko ausardiari eta, azken baten, zezenketei barre egiten zieten. Lan horregatik sari bat eman zioten Yllanari, Tolosan (Frantzia).

1994an, *Glub Glub* lana estreinatu zuten. Marinel jantzi eta esketxez osatutako itsaso baten murgildu ziren, galeoietan ibiltzera, marrazoekin surfa egitera, eta abar. Lan hartan, aurrerantzean izango zuten ukitu berezia erakutsi zuten. 1994an, Cornellako pailazoen jaialdian aurkeztu zuten.

1998an, *666* antzezlan prestatu zuten. Ordura arte prestatutako lan lotsagabe eta zatarrena izan zen. Heriotza-zigorraren zain dauden lau lagunaren istorioa kontatzen zuten: aulki elektrikoa, urka, gilloti-

na... Antzezlan hartan, biolentziari eta heriotzari barre egiten zioten. 1998an aurkeztu zuten, Suecako nazioarteko jaialdian (Valentzia).

1999an, Udazkeneko Jaialdian *Hipo* lana aurkeztu zuten: *Moho*-k polizia izan gura du, baina *sex shop* baten *Sadex* irakaslearekin elkartu da, eta biek egitasmo maltzur bat prestatuko dute.

2000an, *Rock&Clown* antzezlan idatzi zuten. Lan haren haria rock musika zen, eta Yllanak antzerki-kontzertu moduan definitzen zuten lana.

Orain dela gutxi, *Glub Glub* lana umeendako eta gaztetxoendako egokitu dute, eta *Splash* izena jarri diote. Yllanako arduradunek diotenez, *Splash* adin guztietako umeendako da.

Nazioartean emankizun asko eskaini dituzte, eta eskola handia dute Madrilgo Yllana taldekoek.

## Udaleko Gazte Sailak hainbat ikastaro antolatatu ditu

Udaleko Gazte Sailak hainbat ikastaro antolatatu ditu. Horieta-ko batzuk urtero egiten dituzte, baina badago berritasunen bat edo beste ere. Interesatuok, izena eman Gazte Bulegoan.

Martxoaren 7tik ekainaren 20ra arte eta urriaren 10etik abenduaren 19ra arte, Euskal Dantzen ikastaroa egingo dute. 10 urtetik gorakoendako izango da, eta gehienez 38 ikasle izango ditu. Matrikula 9 euro izango da.

Maiatzaren 10etik ekainaren 14ra arte, Sabel Dantza ikastaroa egingo dute. Aurten ere Jaione Albenizek emango du, zapatu goizetan. Musakola kiroldegian izango da eta maila bi izango ditu: hastapen eta sakontze mailak. Matrikula 30 euro izango da. Ikasle eta langabeek, ostera, 15 euro ordaindu beharko dituzte.

## TXALAPARTA ETA ALBOKA

Otsailaren 28tik ekainaren 7ra arte, Txalaparta ikastaroa egingo dute, egubakoitzetan eta zapatu-tetan. Denera, 56 ordu izango dira eta ikastaroa Musakolako saloian egingo dute. Maila bi prestatu dituzte: hastapen eta sakontze mailak. Matrikula 18 euro izango da. Ikasle eta langabeek, ostera, 12 euro ordaindu beharko dituzte.

Martxoaren 1etik ekainaren 21era, Alboka ikastaroa egingo dute, zapatu goizetan. Angel Agirianok emango ditu eskolak, Arrasate Musikalen. Matrikula 18 euro izango da. Ikasle eta langabeendako, 12 euro.

Martxoaren 1etik apirilaren 12ra, Argazkigintzako hastapen ikastaroa egingo dute, zapatu goizetan, ASAk Erguinen duen egoitzan. Gehienez 12 lagunek eman ahal izango dute izena. Matrikula 30 euro izango da. Ikasle eta langabeendako, 20 euro.

Berritasuna Klown ikastaroa izango da, martxoaren 1etik apirilaren 12ra. Idoia Sánchezek emango du. 18 ordu izango dira. Matrikula 30 euro izango da. Ikasle eta langabeendako, 15.

## LABUR

### Jokin Zaitegiren 'Euzko-Gogoa' berrargitaratu dute

1950ean, Jokin Zaitegik *Euzko-Gogoa* aldizkaria sortu zuen. Garai hartan, Jokin Zaitegi Guatemalan zegoen, eta *Euzko-Gogoa* gerra osteko euskara hutsezko lehen aldizkaria izan zen.

Orain, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura Departamentuak eta Susa literatura argitaletxeak *Euzko-Gogoa* aldizkaria berrargitaratzea erabaki dute. Berrargitalpena bi formatutan egingo dute: batetik, testuan eta bestetik, faksimilean.

E, TXO!

**LUDOTEKA IBILTARIA**

Otsaileko zapatuetan (15ean eta 22an), Ludoteka Ibiltaria egongo da Musakolako Herri Eskolan. 3 eta 12 urte arteko umeak jolastu ahal izango dira Musakolako ludotekan, 11:00etatik 13:30era bitartean. Txatxilipurdiko begiraleak zainduko dituzte umeak.

**'LARUNBLAI' USAETXE PLAZAN**

Bihar, zapatua, Txatxilipurdik *Larunblai*-ko beste saio bat egingo du. 11:00etatik 13:30era, ile apaindegi lantegia jarriko dute Usaetxe plazan. Eguraldi txarra eginez gero, arkupeetan egingo dute.

**TXATXILIPURDI, BEGIRALE BILA**

Txatxilipurdi elkarteak 2003ko udalekuen prestaketa lanetan hasi da, eta begirale izan gura dutenei dei egin die. Interesatuak curriculum, argazki bat, begirale titulua eta NAREN kopia aurkeztu beharko dute Txatxilipurdik Pablo Urangan duen egoitzan, apirilaren 16a baino lehenago. Izena emateko bete beharreko baldintzak honako hauek dira: 18 urte edo gehiago izatea, euskaraz jakitea eta Txatxilipurdik antolatzen dituen eragile formazio saioetara joatea. Informazio zabalagoa, 943 77 17 39 telefonoan (Jaione edo Itziar).

**GAZTESAREA EGITASMOA**

Orain dela gutxi Gaztesarea egitasmoaren aurkezpenaz azaldu zuten, euskal gazte mugimendua eraikitzeko eta garatzeko baliabideak eskaini eta lanabes izan gura du egitasmo horrek. Besteak beste, martxoaren 1ean, Interneteko ataria estreinatuko du Gaztesarea taldeak.

**GUREGAIK/ NEGUKO OLINPIADAK**

**AEDk eta Topaguneak Neguko Olinpiadak antolatu dituzte**

IKER BARANDIARAN

Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak eta AEDk III. Neguko Olinpiadak antolatu dituzte. Arrasaten lehenengo aldiz egingo dituzte, otsailaren 22an. Martitzena baino lehen eman beharko da izena.

Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak eta AEDk III. Neguko Olinpiadak antolatu dituzte. Aurretik, Usurbilen eta Alegian egin zituzten eta aurten, Arrasaten egingo dituzte.

Bi elkarteek adostu duten eguna otsailaren 22a da, eta egun osoan hainbat proba izango dira. Izan ere, olinpiada horien helburu nagusia da egun pasa ederra egitea, euskal giro jatorrean eta

*15 urtetik gorako edozeinek har dezake parte Neguko Olinpiadetan*

neguko kirol ekintzetan oinarrituta (broma, jolasa, lehia, festa, eta beste batzuk).

**10:00ETATIK ILUNTZERA ARTE**

Otsailaren 22an, Uarkape pilotalekuan elkartuko dira: 10:00etan, kanpotik datozei harrera egingo diete; gero, Herriko Plazara



ANDER GILLENIA

Neguko Olinpiadetan ez da halako proba gogorrik egongo.

joko dute; 10:30ean, girotze jolasak eta luzatze ariketak egingo dituzte; 11:00etan, taldeak banatuko dituzte; 11:30ean, ostera, goizeko probak hasiko dituzte. Herri kiroltetan oinarrituko dituzte: sokatira, gurdia, lasto jaurtiketa, txingak, arto batzea, ingudea...

14:30ean, bazkaria eta bertso-lariak izango dira. Horren ondoren, kirol lantegiak izango dituzte Uarkapen, 16:00etan: *Wing Tsun, Tai Chi*, aerobic, eskalada,

*Tumbing* eta *Capoeira*, hain zuzen ere; 18:30ean, sari banaketa egingo dute. Hala, 19:00etan bukatuko dira Olinpiadak.

15 urtetik gorako edozeinek har dezake parte, eta otsailaren 18a baino lehenago eman beharko du izena AEDn, eta hamar euro sartu beharko ditu Euskadiko Kutxako kontu zenbaki honetan: 3035 0036 1 3 036.0.05581.0. Eguraldi txarra eginez gero, ekintzak Uarkapen egingo dituzte.

**GUREGAIK/ GAZTE KONTSEILUKO LOGOTIPO LEHIAKETA**

**Gorka Zubizarretak egin du Gazte Kontseiluko logotipoa**

IKER BARANDIARAN

Arrasateko Gazte Kontseiluak badu logotipoa. Gaur, egubakoitza, sari banaketa egingo dute osoko bilkuren aretoan, 18:00etan. Lehiaketara aurkeztutako lan guztiak Monterronen egon dira ikusgai.

Arrasateko Gazteen Kontseiluak Logotipo Lehiaketa antolatu zuen 2002ko bukaeran, eta lehiaketak oso harrera ona izan du. Lehiaketan 66 lagunek hartu dute parte: 23 parte-hartzaile A eta B kategorietan eta 43 parte-hartzaile D kategorian. Epaimahaia oso pozik gelditu da lehiaketak izan duen harrera onarekin, baita aurkeztutako lanek duten mailarengatik ere. A kategorian, 5 urteko Irune Lozak irabazi du; B kategorian, 17 urteko Evelyn Hernándezek jaso du lehenengo saria; eta D kategorian, 24 urteko Gorka Zubizarretak eskuratu du lehenengo saria. Hirurak arrasatearrak dira, eta honako sariak jaso dituzte: Irunek 180 euro balio duen jostailu sorta irabazi du; Evelynek 360 euro balio duen kirol material sorta irabazi du; eta, azkenik, Gorkak 750 euro jasoko ditu.

**LAN GUZTIAK ERAKUSGAI**  
Lehiaketan parte hartu duten lan guztiak ikusgai egon dira Monterronen aste osoan.

**LAN GUZTIAK ERAKUSGAI**

Lehiaketan parte hartu duten lan guztiak ikusgai egon dira Monterronen aste osoan.

Arrasateko Gazte Kontseilua Arrasateko Udalak eta herriko gazteek sortutako



IKER BARANDIARAN

Gorka Zubizarreta izan da D kategoriako logotipoaren irabazlea.

bilgunea da, guztiz autonomia eta burujabea. Une honetan, honako taldeak daude, baina ateak zabalik dituzte: Txatxilipurdi, AED, AGAKO, Arraska eta Gizaizpi Alai. Datorren astean, informazio zabalago emango dizuegu.



**Metal aroztegia eta PVC**

Leihoak eta itxierak  
**Egur aroztegia**

Leihoak  
Ateak  
Armairu enpotratuak  
Armairu-fronteak  
Mota guztietako zoruak  
Lixatua eta bernizatua

**Osagarriak**

Neurrira egindako alfonbrak  
Gortinak, mahai eta aulkiak

Erakusketa eta biltegia:  
Kale txiki, 3 behe (Musakola)  
Tel eta faxa: 943 77 11 20

**ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA**

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel: 943 79 48 77 • ARRASATE



**Gambrinus garagardotegia**

- Menua:
- bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna, 40-42  
Tel.: 943 79 53 32

## BEHEKODENDATIK

## Begoña Arteaga Guenaga

## BUART LORA DENDAKUE

XABIER URZELAI

Begoñak oin dala urte bi zabaldu euen loradendie, baiñe 16 urte daroie lorak produziduten. Begoñak semiekin egitten dau lan, lkerrekin. Iker nekazari-tzako ingenierue da, eta bixon artien talde ona egitten daue. Lorari gainien jakin biherreko dana dakixe, eta loraren bat gaixotu ezkeru, lkerrek mediku lanak egitten dittu.

## Amets bat?

Goizero kalera urteterakuen jentiek poztasunez saludetie. Jentie zorionsu bizi dala ikustie.

## Eta amets txar bat?

Amets txarrik eukittie ez dau merezi, errealdadie bestela be nahikue gogorra da-eta.

## Egin dozun azken biajie?

Kanariasera, udan. Oso rekuerdona dauket.

## Txartel horixe, zeñei?

Neure buruari, batzuetan jeni-xo txarra eukitten dotelako.

## Eta gorrixe?

Ba, Bushei, Aznarrei, Blairrei, Saddam Husseinei...

## Pelikula bat? Liburu bat? Musika talde bat?

Charlie Chaplinen *El gran dictador* / *Las cenizas de Ángela* / Benito Lertxundik Euskadiko Orkestriaz daukon diskue.

## Drogak legalizauko zittukie?

Bai.

## Eta prostituziñue?

Hori be bai.

## Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Txikiteue jatorrague pentsetan jat.

## Etxeko zapatillak ala zapat?

Zapatillak, duda barik.

## Ze dauketzu sobran?

Dana. Beste leku batzutan zela bizi dien ikusitue, dana dauket sobran.

## Eta faltan?

Pake apur bat.

## Ze gustetan jatzu Mondraguetik?

Gauza asko. Mondraguetarrak berezixek die, baiñe onerako. Sin-



X.U.

*"Aparkamentuen arazue haundixe da, baiñe seguru konponbide gatxa eukiko dauela"*

pliek, jatorrak eta irekixek die.

## Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Aparkamentuen arazue; baiñe pentsetan dot konponbide gatxa eukiko dauela.

## Eta lehendakari izengo bazitze?

Euskaldunek batzen ahaleginduko nitzake.

## Bizio bat?

Orduz kanpoko pikoteue.

## Ezagutu dozun pertsona interesante bat?

Jente nagusixe oso interesantie da. Asko daukie esateko.

## Eta ezagutu nahiko zeunke-ena?

Gandhi edo Marie Curie.

*"Kaktusak amagiñarrebendako die. Hala be, kaktus batzuk oso lora politte daukie"*

## Tranpan ibilttekotan nor baittekin, zeñekin?

Robert Redford-ekin. (Barriek) San Valentiñetan, ze? Larrosa bat erregalau.

## Eta bikotiek kaktuse erregalau ezkeru, txarto pentsetie onena?

Kaktusak amagiñarrebendako izeten die, baiñe lora politte emuten dittuen kaktusak be badauz.

## Mondraguetarrok badauko-gu lorak erregaletako ohitturarik?

Bai. Bai gizonezkuek bai emakumezkuek.

## Orduen, romantikuek gare.

Romantikuek baiño gehixago, sensibliek, esango neuke nik.

## NIREBIDAIAHURA/ Txus Torres

Istanbulera / 2002ko azaroan

Txus Istanbulen egon zen joan den urteko azaroan. Ramadan sasoia zen, eta, Txusen esanetan, horixe izan zen bidaiako gauza onenetako bat. Ramadan sasoian joatea, alegia. Europaren eragina nabarmena ei da Istanbulen: "Hango emakumeek ez dute belorik eramaten, *Levis*-ak janzten dituzte. Hala ere, egon badaude goitik behera estalita joaten diren emakumeak". Turkian sexu bereizketa handia dagoela dio Txusek, bai eta klaseen arteko bereizketa ere. Zazpi egunean, uste baino gauza gehiago bisitatu zituzten Txusek eta lagunek: meskitak, merkatuak, bainu turkoak, kanposantuak... Istanbulera iritsi eta bigarren gauean, Taksim izeneko auzora joan ziren afaltzera. Hango jatetxe baten Turkiako jaki tipiko bat probatzeko aukera izan zuten: *kebab* delakoa.

"Turkiarrek espezia asko erabiltzen dituzte, eta janaria goxoa bada ere, azkenerako asperu egiten zara". Bainu turkoan ere ederto pasatu zuten: "Lehenengo, marmolaren gainean etzan, eta egiten duen beroarekin izerditan hasten zara. Segidan, xaboiak igurtzi eta masajea ematen dizute. Ez pentsa masajea gozua denik, astindu ederra ematen dituzte-eta, baina gorputza guztiz erlaxatuta geratzen da".

Erosketak egiteko astia ere izan zuten. Txus harrituta geratu zen Bazar Handia izeneko merkatuarekin: "Aste osoa egin zenezake merkatu hartan, sekulakoa da, eta denetik dago han. Gauza mordoia erosi genituen merkatu hartan, eta oso merke, gainera". Txusen esanetan, kalean zehar berehala hurreratzen zitzaizkien turkiarrek: "Esaterako, 'Nire lagun batek badu denda bat', 'Ezagutzen dut ondo ematen duten jatetxe bat', eta holakoak esaten. Eta, jakina, harreman publiko moduan egiten dute lan. Zerbait erosi behar duzula ikusten dutenean, berehala gonbidatzen zaituzte tea hartzera; ohitura handia daukate". Txusek ederto pasatu zuen Istanbulen. Zazpi egunak motz geratu zitzaizkion, eta berriz joango dela dio.

XABIER URZELAI



Istanbuleko meskita bat, Urrezko Adarra errekararen ondoan.

*"Europaren eragina nabarmena da Istanbulen"*

**M**obiliario  
**A**RENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

Monte  
taberna

Maalako errabala 2  
Tel.: 943 79 20 56



**Herrialde berriak bisitatu dituzu?**

Zure bidaiak kontatzeko prest zaude?  
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

**Deitu 943 71 25 11 telefonora.**



## ZAHARREN ETXETIK



AITOR URIZAR

Mota askotako eskulanak ikus ditzakegu Abaroako ikastaroan. Ea laster erakusketaren bat prestatzen duten!

## Eskulanen ikastaroarekin gustura dabilta Abaroako bazkideak


IKER BARANDIARAN

Eguenero-eguenero, finfin ibiltzen dira hainbat erretiratu Abaroa zaharren elkarteko gelatxo baten. Badira hainbat urte Abaroan Eskulan ikastaroa ematen dutela. Ikastaro horretako ikasle beterranoek bost bat urte daramatzate eskola horiek hartzen. Urte horietan guztietan, irakaslea Ines Murillo arrasatearra izan da, eta pazientzia handia erakusten du gaur egun dituen 16 ikasleekin: 15 emakume eta gizon bakarra. Ikasle bakoitza eskulan propioa lantzen dabil, eta Inesek guztiak gobernatu behar izaten ditu.

Ikastaroko beterranoek diotenez, aurreko urteetan aurten baino lagun gutxiago ibili dira. Dena dela, bai ikasleek baita Abaroako arduradunek ere herritarrei gonbita egiten diete ikastaroan parte hartzeko. Abaroako bulegora edo eguenetan 15:00etatik 18:00etara ikastarora bertara jo, ez da besterik egin behar.

Abaroako Eskulan ikastaro-

an mota askotako lanak ikus ditzakegu. Izan ere, denetik aurrki dezakegu: gehientsuenak margolanak prestatzen aurkitu ditugu, baina beste batzuk bainika, kakorratza, puntua edo bestelakoak egiten ibiltzen dira. Horien artean, salbuespenetako bat dugu ikastaroko gizon bakarra: Valero Feok loreak egiten trebezia handia du. Orain dela gutxi, papezko loreak egin zituen, eta joan den egunean, oster, alanbrez-



ko lore sorta egiten harrapatu genuen, txintxo-txintxo, Valero Feo.

### ESKULAN ESKAINTZA HANDIA

Ikasle batzuek eskulanak egiten hutsetik abiatuta ikasten dute eta beste batzuk, oster, aurretik dakitena praktikatzeko asmoz joaten dira Abaroako ikastarora. Horietako batzuek etxean jarraitzen dute eskulana egiten, eta eguenetan irakasleari erakusten diote; beste askok, oster, ikastaroan bakarrik egiten dituzte langintza horiek.

Orain arte Eskulan ikastaroan jaso duten eskulan eskaintza oso zabala da. Espezializatuen artean, margolanak, erretxinarekin dekorazioa, lanparak eta beste batzuk daude. Gainerakoenak, oster, ohikoagoak dira: kakorratza, bainika eta puntua, besteak beste.

Eskaintza zabal horren hariara, Abaroa zaharren elkarteko arduradunak aztertzen dabilta ikasten dituzten eskulanak banatzea, eskulan berbera egiten dabiltzanak taldetan batzea eta aurrerantzean irakasle bi izatea.

## LABUR

### Abaroa zaharren elkarteak Oropesa del Marren astebeteko txangoa antolatu du

Abaroa zaharren elkarteak txango polita antolatu du. Maiatzaren 11tik 18ra, Oropesa del Marrera eta Castello de la Planara joko dute, Marina D'Or hotelera. Izena emateko epea otsailaren 3an zabaldu zuten eta martxoaren 15ean itxiko dute. 215 euro ordaindu beharko dituzte. Abaroako bazkideek lehentasuna izango dute, baina beste erretiratuek ere izena eman dezakete.

### 1951ko eta 1958ko kintoek urteroko ospakizunak antolatu dituzte martxorako

1958ko kintoek -1937an jaiotakoak- egun handia ospatuko dute martxoaren 15ean. San Juan Bautistan meza izango dute, eta Musakola Hostalean bazkalduko dute. Interesatuok martxoaren 9a baino lehen Jose Riviereri deitu beharko diozue (943 79 10 57). 10 euro ordaindu behar dira. 1951ko kintoek -1930ean jaiotakoak-, oster, martxoaren 1ean ospatuko dute egun handia. San Juan Bautistan meza izango dute eta Musakola Hostalean bazkalduko dute. Izena emateko, 943 79 80 08 telefonora deitu (Juan Jose Uribarren).

## ZAHARREN AHOTIK

### Begoña Azantza

ERRETIRATUA

Begoña Portugaleten jaiotzen, haurtzarora eta gaztarora Nafarroan igaro zituen, eta 1960an, ezkondu berri, Arrasatera etorri zen.

Jaiotzez bizkaitarra zara, baina Nafarroan bizi izan zinen, ezta?

Bai, 1932an jaiotzen, Portugaleten. 4 urte nituela, aita kartzelara sartu zuten eta ama, anaia eta hirurok Morentinera (Lizarran inguruan) joan ginen. Umetan, Morentingo eskolara joan nintzen, eta horren ondoren, Lizarrara. Irakasle ikasketak egiten hasi nintzen, baina amandreak osasun arazoak izan zituen, eta, hala, ikasketak utzi egin behar izan nituen, hari laguntzeko.

Eta zelan ezagutu zenuen Arrasate?

Bergarako lagun bat urtero Morentingo jaietara joaten zen. Hala, ni neu Bergarako jaietara joaten nintzen, eta, 1956an, etorkizunean nire senarra izango zena ezagutu



nuen. Luis Zubillagan bizi zen, eta 1960an ezkondu egin ginen, Lizarran, Puyko basilikan. Bi urtez Zubillagan bizi izan ginen, eta 1962an, Arrasatera etorri ginen.

Lanik egin duzu?

Bai, senarrak garraio enpresa bat zuen eta nik lagun batekin lurrindegia zabaldu nuen. Han lan egin dut, erretiratu nintzen arte. Iaz, alargun gelditu nintzen. Hiru alaba eta seme bat dauzkat. Iaz Abaroako batzarrean lanean hasi nintzen.



KONTRATAK  
IRYROK S.L.  
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis • Apdo. 246  
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 - 79 78 14  
ARRASATE

UGARAN  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel: 943 79 76 58  
ARRASATE

ileapaindegia  
peluqueria

Ordelegia:  
Asteartetik-ostiralera 09.30-20.00  
Larunbatetan 08.00-14.00  
Ferrerias 35 - 943 77 13 78

Txitxinpe

Berezitasunak  
Kazuelatxoak  
Otarreko hotz eta beroak

Arrasate pasealekua, 33  
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76



ARRASATE  
**Esti Iturbe**  
Otsailaren 10ean, 5 urte.  
Zorionak! Aitaxo, amatxo eta Miren.



ARRASATE  
**Mainer García**  
Otsailaren 7an, 4 urte.  
Zorionak! Gurasoen partetik.



ARRASATE  
**Andrea Paredes**  
Otsailaren 6an, 11 urte.  
Zorionak! Etxeko partetik.



ARRASATE  
**Pili Lumberas**  
Otsailaren 13an, urtebetetzea. Zorionak! Errastiko lankideen partetik.



ARRASATE  
**Dorleta Larrinaga**  
Otsailaren 6an, urtebetetzea. Zorionak! Seme-alaben eta biloben partetik.



ARRASATE  
**Olatz Heriz**  
Otsailaren 14an, 13 urte.  
Zorionak, *Noñito!* Koadrilako partetik.



ARRASATE  
**G. Rodríguez**  
Otsailaren 17an, urtebetetzea! Zure bilobak: Mikel, Ane, Nagore eta Danel.



ARRASATE  
**Esther González**  
Otsailaren 15ean, 31 urte.  
Zorionak! Familia osoaren partetik.



ARAMAIO  
**Mikel Beitia**  
Otsailaren 14an, 1 urte.  
Zorionak! Baserrikoak, aita, ama eta Jone.



ARRASATE  
**Eukene Dorronsoro**  
Otsailaren 13an, 10 urte.  
Zorionak! Familiako partetik.



ARRASATE  
**Maite Arregi**  
Otsailaren 16an, 13 urte.  
Zorionak! Familiako partetik.




ARRASATE  
**Nayade Isturiz**  
Otsailaren 20an, 6 urte.  
Zorionak! Familiako partetik.



ARRASATE  
**Danel Uribealago**  
Otsailaren 19an, 6 urte.  
Zorionak eta muxu handibat! Etxekoak.



ARRASATE  
**Ikerne García**  
Otsailaren 16an, 7 urte.  
Zorionak! Familiakoak.



ARAMAIO  
**Xabier Berridi**  
Otsailaren 11n, 29 urte.  
Zorionak! Lankideen partetik. Aupa, Iparragirre!



GASTEIZ  
**Virginia Pan Lage**  
Otsailaren 16an, 28 urte.  
Zorionak! Joxe eta Maite.



ARRASATE  
**Rafa Godoi**  
Otsailaren 15ean, berrogeita piku. Zorionak! Joxe eta Maite.



GARAGARTZA  
**Isabel Urrutia**  
Otsailaren 8an, urtebetetzea. Zorionak! Etxeko partetik.



ARRASATE  
**Mainer Osa**  
Otsailaren 14an, 25 urte.  
Zorionak! Lanekoak.



ARRASATE  
**Encarna López**  
Otsailaren 12an, 70 urte.  
Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE  
**Pakita Arando**  
Otsailaren 10ean, urtebetetzea. Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE  
**Joseba Lizaranzu**  
Otsailaren 14an, 21 urte.  
Zorionak! Familiakoak.

Argazkiak emateko lekua:  
ARRASATE PRESS  
Otalora Lizentziaduna 31.

# Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak  
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu haren argazkia\*  
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

\*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.

Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.  
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren.  
Argazkia urtebetetze eguna baino astebete lehenago ekartzea komeni da.



# URONDO

Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak


Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

EZETZASMATU



Arrasateko zein auzotan dago Ingurugiro Eskola?  
Arrastoa: zaharberitutako baserri bat da.

ARRASATE PRESS



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA .....

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**  
ARRASATE PRESSERA!

**Scottex komuneko papera**  
12+4 doan

**2,85€** 474 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

**JESUS BEITIA**rendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Jesus!  
Galderen erantzun zuzena:  
**Egubakoitzean.**

ARRASATEKOHISTORIA

Parrokian aurkitu zuten emakume momifikatua

JON ANDER RAMOS

**A**mandre Santa Ines bezala ezagutzen dugu arrasate-  
arrok parrokian gordeta dagoen gorpu momifikatua. Gorpua momifikatzeko baldintza batzuk bete behar dira: gorpuak leku beroan, lehorrean eta haize-lasterrean egon behar du.

Emakume haren gainean hainbat datu dakizkigu: Ines Ruiz Otorra zuen izena eta etxekoandrea zen. Horrez gainera, Inesen aitak oso kargu garrantzitsua zuen Felipe II.a erregearen gortean. Ines Rodrigo Okarizekin ezkondu zen, baina bikoteak ez zuen seme-alabarik izan. Garai hartarako, Ines nahiko emakume altua zen: 1,67 metro neurtzen zuen. Egun, baina, momifikatutako gorpua metro eta erdi luze da, eta lau kilo besterik ez du pisatzen. Datu horiek guztiak Inesi Zumarragako ospitalean egin zioten osasun azterketari esker dakizkigu.


Inesek, moriskoen ohiturari jarraituta, fin-fin egindako lihozko atorra luzea du jantzita. Horrekin batera, ilea batzeko

*“Amandre Santa Ines bere garairako oso emakume altua zen, 1,67 metro zuen-eta”*

*“Arrasatearrek betidanik izan dute Ines Deunarekiko aparteko benerazioa”*

kofia bat dauka.

Orain arte kontatutakoa harrigarria bada, harrigarriena zera izan zen: Inesen gorpua zegoen hilkutxan hiru haur jaioberriren eta sei urteko baten hondakin organikoak zeuden, hilkutxa txiki baten sartuta. Arrasateko herritarrek betidanik izan dute Ines Deunarekiko aparteko benerazioa. Badirudi loezina sendatze-



ARRASATE GURE HERRIA

Amandre Santa Ines, hilkutxa barruan.

ko ahalmena duela: *Amandre Santa Ines bart einjot amets. Ona bada, bion partez; txarra bada, biok aldrebes inondako bes edo dohala ihes.*

Santa Inesen gorpu momifi-

katua 1989ko udaberrian egon zen ikusgai San Juan Bautis-tan. Erakusketan, azterketa historiko eta antropologikoak ikusi ahal izan ziren. Haren gorpuak parrokian segitzen du.

Edozelan ere, Santa Ines ez da Euskal Herrian dagoen momia bakarra: Rigoitian (Bizkaia) Santu Beltza dago; Elorrión, Durangoko kondeak; eta Iruñean, Santa Katalina.

# Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2003ko otsailaren 14a / 53. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otorla Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

## Udaletxeko barruko aldea goitik behera konponduko dute aurten

UBANE MADERA

Aurtengo aurrekontuen barruan, Aramaioko udaletxea berritzeko diru partida onartu dute. Proiektu horren asmoa eraikina bera egokitzea da. Horrela, adibidez, jendearendako arreta bulegoa bigarren pisuan ipiniko dute, orain dagoen lekua txikiegia delako.

Are gehiago, bigarren pisuan egongo dira Udaleko zerbitzu gehienak: alkatetza, idazkariarendako bulegoa, kontu-hartzailea, administrazio orokorra, zinegotziendako gela, eta, lehen esan bezala, baita jendearendako arreta bulegoa ere. Hori guztiari, gaur egun liburutegia, katastroa eta bulego teknikoak dauden lekuan. Era berean, bigarren pisuan dauden komunak zailtasunak dituztenendako egokituko dituzte.

### LEHENENGO PISUA ETA BEHEKOA

Lehenengo pisuan, berriz, bulego teknikoak ipiniko dute; osoko bilkuren aretoa leku berean eta dagoenetan utziko dute. Eta pisu horretako komuna ere zailtasunak



Oro har, gaur egun lehenengo pisuan dagoena bigarren pisura eramango dute, eta goiko pisukoak behekerora.

dituztenendako egokituko dute. Horrez gainera, artxiboarendako gela bat ere egokituko dute. Gela horrek beheko pisuko beste gela batekin bat egingo du. Eta gela biak karakol itxurako eskailera

baten bitartez lotuko dituzte. Gela bi horietan gordeko dituzte artxi-boko kontu guztiak. Eta beheko pisuan, udaletxearen sarreran bertan, artxiboarendako gelaz gainera, igogailua ere ipiniko dute,

udaletxe guztia lotzeko. Horrela, adibidez, osoko bilkuren aretotik gertu irteera izango du igogailuak, baita goreneko pisuan ere.

Horrez gainera, eraikinaren saneamendua, elektrizitateare-

*Igogailua ipiniko dute: arkupetik bertatik sartu ahal izango da, eta goiko pisuraino igoko da*

*Udaletxea berritzeko 291.468,92 euroko aurrekontua onartu dute*

kin lotutako instalazioak eta, oro har, udaletxearen barruko aldea guztia berrituko dute.

Hori guztia egiteko 291.468,92 euroko aurrekontua zehaztu du Aramaioko Udalak.

Esan bezala, 2003an egingo dituzte udaletxea berritzeko lan horiek.

## HERRITARREN HITZA / Arantza Ibabe • Langilea

### Harginaren istorioa

Gaurko honetan, orain hilabete pare bat entzundako ipuin bat kontatzea noakizue. Behin bakarrik entzun nuenez, zehaztasun batzuk galduta izango ditut beharbada. Baina, mamia neureganatu nuen eta hona hemen.

Bazen behin egunero lanera joaten zen hargina. Haitzetan harria apurtzen eta ateratzen jarduten zuen. Gogaituta zegoen, ordea, bere bizimoduaz; ez zen pozik bizi. Egund sargoritsu batean, eguzki bihurtzeko desioa agertu zuen. Eguzkia denon gainera bizi baitzen eta ez zegoen inoren menpe. Hori pasatuko zela

pentsatu barik, eguzki bilakatu zen hargina.

Bizimodu ederra dut zain-pentsatu zuen. Halako batean, laino galanta gerturatu zitzaion, honek berehala baztertu zuen. Hau gertatu zelarik lainoa izatea desiratu zuen. Baita lortu ere. Orain bai, orain gura dudana egingo dut esan zuen. Euria goitik behera isurtzen hasi zen. Ez zen luzaro igaro indar handi batek beste muturreraino bultzatu zuenean. Nor da indar hori? galdetu



**"Ezingo zara nire artetik pasatu, gainera ez bada"**

zuen. Haizea naiz eta zuk baino indar handiagoa daukat! erantzun zion harro-harro. Beraz, haizea izan gura zuen lainoak. Orain haizea zen. Hemen-dik aurrera eta, eguzkia, eta laino nire esanetara egonda, munduan zehar ibiliko naiz esan zuen indar

handiz.

Baina hara non, haizeak indartsuen jotzen zuenean, oztopo bat topatu zuen bidean, aurrera egiten uzten ez ziona. Badakizue zer den? Itzelezko

mendi sendo eta garaia. Ezingo zara nire artetik pasatu, gainera ez bada-adierazi zion mendiak.

Imajinatuko duzue, hortaz, zer bihurtu zen haizea: mendi. Baina, tak, tik, tik, tik, tak, sentitu zuen; bere barruan baten bat zebilen. Nor zela uste duzue? Bada, hargina.

Honela akabatzen da harginaren istorioa eta zer egitea erabaki ote zuen galdetuko diozue zeuen buruari. Bada, ez dakit. Zuek zer egingo zenukete?

Gaur 14 ditu hilak eta gaurko moduko egunetan sinisten duzuenoi nahiz ez duzuenoi ere, maitemin ON.

## LABUR

### Korrika ez da Aramaiotik pasatuko

Bi urtean behin Korrika pasatzen da Euskal Herritik, euzkararen alde. Eta, hain zuzen ere, aurten ikusiko dugu berritako geurean. Baina, ibilbidea dela-eta, Korrika ez da Aramaiotik pasatuko. Hori baita beti da posible Korrikarekin bat egitea beste herrirekin batera. Hemen, gure ibarrean, adibidez, pare bat egun emango dituzte. Horrela, apirilaren 6an, Oñatitik txutitik etorriko da, Oñatitik. Eta, apirilaren 7an, Landatik sartuko da gure ibarrean. Hain justu ere, Arrasatera 18:30ak Korrika, Mugarririk.

**TELEFONOJAKINGARRIAK**

**OSASUNA / LARRIALDIAK**

Osasun etxea (txandak) . . . . .	945 44 53 40
Botika . . . . .	945 44 50 03
Udaletxea . . . . .	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate) . . . . .	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio) . . . . .	945 45 52 52
San Martin Eskola . . . . .	945 44 50 04
Taxia eta autobusak . . . . .	945 44 50 33
Udal kiroldegia . . . . .	945 44 53 35
Postetxea . . . . .	945 44 50 83
Zuiako Eskualdea . . . . .	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga) . . . . .	943 78 28 00

**AUTOBUSORDUTEGIA**

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00	10:15**	
11:00	11:15	
12:00	12:15**	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30	18:45**	
20:30	20:45	21:05
21:10	21:25**	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:20	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:45	14:10
16:20	17:00	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:10	20:00

**OHARRA:** izartxoak duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Eta bi izartxo dutenetan, auzoetara joateko garraioa izango da. Eskaeraren arabera autobusa erabili gura duenak, bezperan deitu beharko du honako zenbakira: 629 54 59 23

**OHARRAK**

**ARETO FUTBOLA**

Gazte mailako taldeak 3-4 galdu zuen Izarra Gorri taldearen kontra. Kadete mailako mutilek, berriz, 8-3 irabazi zioten La Milagrosa taldeari. Eta neskek, azkenik, 3-5 galdu zuten Virgen Niña taldearen aurka. Edozelan ere, esan beharra dago nesken talde gero eta hobeto ari dela jokatzeko. Datorren asteburuan, gazte mailakoak Gasteizko Aldabe kiroldegira joango dira CD Aurrera de Vitoria taldearen kontra jokatzeko. Partidua 11:45ean da. Kadete mailako mutilek, berriz, Aramaion jokatu dute, 12:00etan, San Jose Nemesianos taldearen kontra. Eta neskek atsedenaldia dute.

**ENTRENATZAILEA BEHAR DA**

Oraindik ere nesken talderako entrenatzaile bila dabilta Bañera taldekoak. Gaur egun, besterik ezean, Jorge Núñez eta Jesus Mari Palomero ari dira lan hori egiten, baina bi horiek zeregin gehiago dituzte.

**ZINEMA**

*Shangai Kid* filma emango dute domekan.

**ZERBITZUAK**

**Berriro ere aldatu dute Arrasate-Aramaio-Gasteiz autobusaren ordutegia**

Aramaioko Udaletik jakinarazi digutenez, Aramaio Arrasatekin eta Gasteizekin lotzen dituen autobusaren ordutegian aldaketak egin dituzte. Horrela, alde batetik, eta jende gazteak hala eskatuta, Arrasaten 21:00etan irteten zen autobusa 21:10ean irtengo da hemendik aurrera. Kontua da kanpoan ikasten duten gazteak larri ibiltzen zirela autobusa harrapatzeko, eta askotan kale egiten zutela. Horren ondorioz, apurtxo bat atzeratu dute.

Bestalde, egin dituzten gainerako aldaketetxoak, batez ere, Fagorreko langileen irteerarekin bat ez egiteko egin dituzte; bestela, lantegiko irteera tokatzen denean, askoz ere denbora luzeagoa behar izaten du autobusak ibilbide bera egiten.

Kontuak kontu, hortxe dago ordutegia. Betiko moduan, ondo taulatxoan ageri dira ordu guztiak banan-banan.



**BOTEPRONTOAN/ Marimar Díaz Santos · Ekonomilaria**

*“Faktura askoren ordainketa atzeratu egin da eta jendea kezatu egin da; horretan lanean ari naiz”*



**S**eguru aski zuetako askok ezaguna izango duzuela oraingo asteko gure elkarriketa-laguna. Marimar Díaz Santos da bera, Izarra-Urkabustaizkoa. Eta, Aramaio Udaletxera etorri da lanera, denboralditxo baterako. Edozelan ere, Aramaio aspalditik ezagutzen du:

**Lehenago ere egonda zara Aramaion, ezta?**

Bai. 1992an etorri nintzen lehenengo, Vital Kutxara, errenta aitorenak egitera. Askok ordutik ezagutzen naute. Gero, Zuiako Koadrilan ekonomilari moduan lan egiten ibili nintzen hiru urtez. Astean pare bat egunez-edo etortzen nintzen hona. ZyB Consultores enpresarendako lanean ere ibilita nago. Eta, orain pare bat urte inguru Txaroren ordezkari egon nintzen udaletxean.

**Zenbaterako etorri zara Aramaiora?**

Oraingoz Estitxu Lasaren ordezkari nago. Hilabete pasatxorako etorri naiz hasiera baten, baina, ikusi behar. Kontu-hartzaile lanak egiten dituzu? Kontu-hartzaile baino gehiago, interbentore lanak. Kontabilitatea, aurrekontua... Atzeratutako lan mordoak izan-

**go duzu, ezta?**

Bai. Orain, behintzat, apur bat antolatuta dago. Adibidez, faktura askoren ordainketa dezente atzeratu da eta jendea kezatu egin da.

**Hortaz, kezatu dienei zer esan go diegu?**

Horretan lanean ari naizela. Edozelan ere, ni urtarrilaren 27an hasi nintzen, gero, elurtea etorri zen... Dena dela, gai horri lehentasuna ematen ahaleginduko gara.

**Aurrekontuarekin lanean ari zarela ere aipatu duzu...**

Bai. Iazko aurrekontutik falta dena batu behar dut eta 2003ko aurrekontua prestatu behar dut. Dena dela, esan bezala, orain, batez ere, fakturekin lanean ari naiz.

**2003ko aurrekontuarekin zer egin behar duzu?**

Aurrekontua bera (diru

kopuruak) zinegotziek egiten dute eta hori eginda eta onartuta dago. Baina, horrekin batera espediente bat ere egin behar da (memoria, langileen anexo bat, inbertsioak, exekuziorako oinarriak...); eta hori guzti hori oraindik egiteko dago.

**Ekonomilari moduan, Aramaio Udaleko kontuak garbi daudela esango zenuke?**

Bai. Baina oso bitxia da. Aramaio, adibidez, argindarragatik eta uragatik zergak batzen ditu. Hori oso berezia da, uragatik eta argindarragatik oso gutxi batzen dituzte zergak. Bestalde, Udalak mailegua du eskatuta, baina, ez dago zenbaki gorrietan. Eta, kontuan hartu behar da, gainera, inbertsio asko egin dituela azkenaldian.

**Inbertsioak aipatu dituzu, gomendatu diezaguzu norberak egin ahal izateko inbertsio egokien bat.**

Gaur egun egin daitekeen inbertsiorik onena etxebizitza bat erostea da (barreak). Hori bai, zaila da, zelako prezioak dituzten ikusita... Eta, gainera, beti diote prezioak merkatzen hasiko direla, baina, gero eta garestiagoak dira. Era berean etengabe ari dira etxebizitzak egiten.

**LABUR**

**Flamenkoa Anboto tabernan**

Aitor Escobar musikariak kontzertua emango du gaur, bari-kua, Anboton. Arrasatearra da, baina hegoaldeko kulturaren ere hezi da. Orain arte Arabiar Emirerrietan ibili da, dantza talde batekin.

**Paleta Txapelketa: 3. jardunaldia**

Zortzi bikote ari dira aurten-go Paleta Txapelketan parte hartzen. Guztira, zazpi partidu jokatu dituzte eta dagoeneko hiru jardunaldi egin dituzte. Oraingo asteburuan jokatu dute laugarren jardunaldia pilotalekuan.

**Alegazioak aurkezteko epea**

Eskualde Egiturako Lurraldearen Zatik Planari alegazioak aurkezteko epea martxoaren 31ra artekoa da. Jaurlari-tzak eta Diputazioak ibarrerako duten plana da hori. Aramaio ere aipatzen dute.

*“Udalaren kontuak garbi daude. Mailegu bat du eskatuta, baina, ez dago zenbaki gorrietan”*


*“Gaur egun egin daitekeen inbertsiorik onena etxebizitza bat erostea da”*

ERRETRATUZAHARRA

# Agur, 'Zurdo de Mondragón'

**J**oan den zapatuan, hilaren Iean, Santi Etxeberria *Zurdo de Mondragón* hil zen. Pilotari handia izan zen, eta geuk ere gogora ekarri gura izan dugu.

1992an ARKOk egindako elkarrizketa baten *Zurdo de Mondragón*-ek esan zitueneko batzuk aukeratu ditugu, pilotariaren izaeraren eta lanaren laburpen modura. Hara zer esan zuen, besteak beste: "Guk egunero jokatzen genuen (...) *Mondragonés*-ekin egunero-egunero. Hura entrenatzen ez bazen, gogortu egiten zen; eta orduan, entreatu beharra zeukan, eta gu harekin. Gainera, gerra garaia zen, eta entreatzen ginela, bombardaketak eta guzti izaten ziren; gu ezkutatzen ginen izkina baten eta bonbak pasa orduko, berriro entreatzera (...). Niretzako pilotari izatea zen munduko gauzarik onena, ez injineru ez ezer, pilotari, denen gainetik! Pilotaria ondo kontsideratua zen, bertako kirolik nagusia zen eta normala zen pilotan egitea. Fabrikatik irten, frontoira hurbildu eta dirua jokatzeratzen". Soldadu ere ibili zen *Zurdo*



*de Mondragón* gerran, baina pilota ahaztu barik: "Tarteka Burgostik ihes egiten nuen, pikotan egiteko; *cabo fouriera*-kin konpontzen nintzen. Orduan, zerrenda pasatzerakoan tako batzuk zeuden norberaren izenarekin, eta izena esatean takoa kentzen zuten. Era horretan, nire izena agertzen

zuzenean kabuak takoa kentzen zuen izenik esan gabe, nik kabuari 50 duro eman ondoren, noski (...). Pilota uztea pena handia izan da niretako, garbi dago. Zuk badakizu zer den lanetik irten 18:00etan eta zuzenean frontoira joatea; ederra da hori, ederra!".  
Hona hemen *Zurdo de Mondragón*,

Arrasateko beste pilotari batzuekin, ezkerretik hasita: Etxabe X.a, *Zurdo de Mondragón*, Arriaran II.a, *Txikito* Iraeta, Tadeo, Arriaran III.a, García Ariño I.a eta *Txikuri*.

**Argazkia eta informazioa:** *Pilota* liburua (ARKO) **Urtea:** 1992an argitaratutako liburua.

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

## Epeleko errepideko lanak

**E**peleko errepideko lanak 1991n hasi zituzten, baina Zeleta baserria 1993ra arte ez zuten bota. Epeleko errepideari esker, Bergaratik eta Oñatitik datozenek ez dute Arrasatera sartu beharrik Kanpanzarrera igotzeko. Bizkaia ondo-ondoan daukagu, baina Kanpanzar muga psikologiko handia da. Hala, Epeleko errepideak muga hori leundu egin du apur bat.



**1991** Argazki horrek hamabi urte inguru izango ditu. Errepidea ez zuten egun batetik bestera egin, lan handia zegoen-eta.



**2003** Argazki hori joan den astekoa da. Sara jatetxea baino apur bat goragotik dago aterata. Errepidea ia ez da ikusten, zuhaitzak daude-eta.

**CE** ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
osagaiak

Olarte kalea, 47 behea Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25


**BASATI**  
**TABERNA**  
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK  
Tlf. 943 711768

**"PAL"**

Burdindegia  
Brikolajea  
Tresneria

Uribarri etorbidea 3  
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

# 1. euskal selekzioaren cd-rom jokoa



## 902 010 735

Telefonoa 24 orduz.

**Imajina dezakezun guztia!**



Egin ezazu zuk zeure hamaikakoa!



Aukera ezazu taktikarik egokiena



Jokatu: Munduko Txapelketa, Lagun arteko partiduak, sarean,...

Grafikorik onenak 3D-n Txilenak, erregateak, jaurtiketak, sarrera ikusgarriak, golen ospakizunak...


Giro-soinu aparta, Ikurrinak harmailetan...

Jokoaren estatistikak

Jokaldi onenen errepikapenak...

Lau futbol zelai aukeran.

Partiduak egunez, gaez, euriarekin...



**euskal selekzioaren bufanda**  
Izakinak bukatu arte.

Zure etxean,  
72 orduan bidaltze gasturik gabe



# 35,95 euro

Jokoa orain erosiz gero, bufanda eta garraioa

# DOAN

# Osasun Gida

## AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behea. ezk. .... ☎ 943 77 13 34

## DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A ..... ☎ 943 77 05 57

## ENTZUMEN ZENTRUA

- GAES Otolora lizentziaduna 18 ..... ☎ 943 71 27 93

## ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 ..... ☎ 943 77 00 40

## FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETxea Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B ..... ☎ 943 77 03 96
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ..... ☎ 943 77 14 72

## KIROPRAKTIKA ZENTRUA

- ANDREA LARRAÑAGA Erdiko kalea, 22-3. eskuma ..... ☎ 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kalea, 37 ..... ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ..... ☎ 943 79 48 77

## MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Kiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) .... ☎ 943 77 01 33

## ODONTOLOGIA

- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 19-1 Ezk ..... ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA Zerkaosteta, 19 behea ..... ☎ 943 79 71 90
- GIPUZKOAKO ODONTOLOGIA ESPEZIALITATEEN ZENTRUA. Iturriotz, 7 Bis ..... ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ..... ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 ..... ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3- 1.-B ..... ☎ 943 77 12 63

## OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzezino, 6 ..... ☎ 943 79 25 98
- MULTIOPTICAS LARRAÑAGA (Optika, Optometria eta kontaktologia) J. Carlos Guerra 1 ..... ☎ 943 79 29 95

## ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzezino, 2 ..... ☎ 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ..... ☎ 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 ..... ☎ 659 58 66 89

## PODOLOGIA

- ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA Erdiko kalea 54, behea eskuma ..... ☎ 943 79 97 46

## PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kalea, 37 ..... ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ..... ☎ 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ..... ☎ 943 79 88 16

## UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ..... ☎ 943 79 44 22